

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

**2014 urteko jardueren
memoria**



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
www.egk.org



AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA	
1.1. Emantzipa...ZER? Etxebizitza eta Gazteria	4
1.2. Gazteak eta Enplegu lan taldea	6
1.3. Emperdedores. La cara B del emprendimiento juvenil	10
1.4. Prekarietatearen prebentzioa	12
1.5. Protokoloak: gaztetxeak eta lan istripuak	15
1.6. Finantziak bilatu: Gazteen Parte-Hartze inkubadora	17
2. HEZKUNTZA	
2.1. HEZKUNTZA EZ FORMALA	
2.1.1. Astialdi Foroen Koordinazioa	19
2.1.2. Udako kanpaina	23
2.1.3. Astialdiko ikastaroen zabalpena	25
2.1.4. Astialdi Foroko webgunea (www.astialdiforooa.org)	26
2.2. HEZKUNTZA FORMALA	
2.2.1. Unibertsitateko elkartegintza (Hezkuntza Foroa)	28
2.2.2. Euskadiko Eskola Kontseilua	29
2.3. OROKORRA	
2.3.1. "Kanpalekua Legebiltzarrean" ekimena	29
2.3.2. Egunerokotasuna	30
3. PARTE HARTZEA	
3.1. "Gazteak eta parte-hartzea" ikerketari jarraipena	31
3.2. Gazteen parte-hartzerako gida	33
3.3. Gazteekin eta gazte eragileekin zuzeneko harremana	35
3.3.1. Material eta gelen lagapena	35
3.3.2. Gazteei eta elkarteei aholkularitza eta zuzeneko harremana	38
3.3.3. Adierazpen publikoak	41
3.3.4. Kide eta eremu berriak EGK-ra hurbildu	42
3.4. Erakunde publikoekin harremanak	43
4. KOMUNIKAZIOA	
4.1. RECacciona, gazteok enplegu duina! Bideo lehiaketa	45
4.2. Piztu! Hamabosteroko buletin elektronikoa	48
4.3. Berriz Berri hileroko poster-agenda Sare Sozialen kudeaketa	50
4.4. www.egk.org webgunearen kudeaketa	52
4.5. Sare sozialen kudeaketa	54
4.6. Komunikazio kanpainak	56
4.7. Barne komunikazioaren kudeaketa eta beste batzuk	63
5. GASTEIZKO HITZARMENA	
5.1. Gazte topa	64
5.2. Gazte Astea	65

**6. BAKEA**

6.1. "Gazteak biolentziaren aurrean: bizikidetza sustatuz" formakuntza saioa	70
6.2. Bakeahots komunitate birtuala	73
6.3 Bake Ibilbidea Topaketa	75
6.4. Erreferentzia-funtsaren planteamendua	78
6.5. EAEko erakundeekin bilerak	79
ERANSKINA. Bake eta Bizikidetza arloko beste ekintzak	82

7. PRESIDENTZIA

7.1. Batzorde Iraunkorra	84
7.2. Lantalde Teknikoaren koordinaketa	85
7.3. Batzorde ekonomikoa	86
7.4. EGK Batzar Orokorra	87
7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA	88
7.5.1. Eusko Jaurlaritza	88
7.5.2. Aldundiak	90
7.5.3. Eusko Legebiltzarra	91
7.5.4. Batzar Nagusiak	92
7.5.5. Alderdi Politikoak	92
7.5.6. Udalak	93
7.5.7. Beste Erakundeak	94
7.5.8. Irudi Publikoa	95

8. BATZORDE IRAUNKORRA

8.1. Arlo Teknikoen jarraipena	97
8.2. Ordezkaritza, irudia eta harremanak	98
8.3. Batzar Orokorra	99
8.4. Genero eta Berdintasuna	100
8.5. III. Gazte Plana	100
8.6. Indartzen	101

9. BERDINTASUNA

9.1. Legebiltzarra	103
9.2. Teknikaria	103

10. EGK-KO KUDEAKETA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOA

10.1. Batzarrean onartutako 2014rako aurrekontua	104
10.2. Kontrol ekonomikorako batzordea	106
10.3. 2014rako EGK-ko Balantze ekonomikoari buruzko iruzkinak	107
10.4. 2014ko EGK-ko Balantze ekonomikoa	109



SARRERA

Dokumentu honetan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2014an burutu duen lanaren berri ematen da. Urte honetan ere aldaketa ugari egon dira eta horiek EGKn eduki duten eragina handia izan da.

Lehenik eta behin, azken aldian hartutako goranzko norantzan jarraitu dela aipatu beharra dago. Lan arlo eta langile berriak lortu dira. Zenbat eta baliabide eta jakintza handiago, orduan eta zerbitzu hobeak eskaini ahal izan diogu gizarteari eta gazteei batez ere. Bake eta Bizikidetzaren arloa, eta Berdintasun arloa, martxan jarri dira berriro.

Neurri handi batean, aurreko batzarrean hartutako erabakiek baliatu dituzte 2014ko proiektuak eta emaitzak.

Hauek guztiak kontutan hartuta, EGKren jarduna eta lortutako etekinak ezin hobeak izan direla esan daiteke. Alde batetik, arlo bakoitzerako aurreikusita zegoen plangintza aurrera atera delako; eta bestetik, proiektu guztiak egiteaz gain, oihartzun handikoak izan direlako.

Horri esker, Kontseilua medioen aurrean, berriro ere Gazteria arloko erreferente gisa finkatu da eta hainbat eskaera jaso dira irrati, telebista eta prentsa idatziko medio ezberdinetatik gure iritzia eta agerraldiak eskatuz.

Urte honetako beste arrakasta nabarmen bat instituzio eta talde politikoekin izan dugun harremana izan da. Honi esker inzidentzia politikoa are eta eraginkorragoa izan delako.

Administrazio guztietako Gazteria Zuzendari eta Teknikoekin elkarlana jarraia izan da. Udal mailako harremanetatik hasita, Eusko Jaurlaritzako zuzendarietara. Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan hainbat agerraldi egin dira eta alderdi politiko ezberdinekin eztabaida eta elkarriketak.

Egin diren proiektu ugari eta anitzei esker, gazte eta eragile berriak ezagutu ditugu eta norantza berdinean jarraitzeko ilusioa piztu digu, gazteen ahotsa barik, EGK-k ez baitu zentzurik!!



1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA

“Gazteon autonomia pertsonal zein kolektiboa, lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuak eta etxebizitza eskubidearen ukazioak bultzatuta, geroz eta beranduago eskuratzen dugu. Independentzia materialaren gaineko haustura hau, bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakar, eta gazteon hiritartasuna guztiz ahultzen du. Gehienetan familiarekiko dependentzia ekonomikoa urteetan zehar luzatu eta jendarte-komunitatean jokatzeko dugun rola erabat mugatzen da.”

Enplegu eta etxebizitza arloak, gazteon errealitate honi erantzuten dioten elementu ezberdinak biltzen ditu bere baitan: Etxebizitza, enplegua edo lana, gizarte ongizaterako baliabideak... Guztiak, gazteon independentzia materialean, askatasunean eta bizitza kalitatean bere biziko garrantzia duten alorrak dira. EGK, arloaren garrantziaz jabetuta, urteak daramatza ildo hau jorratzen. Azken urte hauetan, haxe izan da lan esparru honen helburu orokorra:

Arloan oinarritzekoak diren gaien gaineko barne lana eta hausnarketa bideratu eta sendotu, beste eragileekiko lana irekiz eta indartuz, baita EGK-ren iritzia eta ekarpena administrazioan eta erakunde politikoaren aurrean egon dadin bermatzea.

1.1. Emantzipa...ZER? gazteak eta etxebizitza

Deskribapena

EtxebizHitza plataforman kolektibo ezberdinekin egin izan du lan urte askotan EGK-k, baina behin plataforma honen ekintzak gelditu izan direla eta duela nahiko denbora gazteria eta etxebizitzaren inguruko proiektu propio bat garatzea beharrezkoa zela ikusirik, horretarako lehen pauso txiki batzuk eman ziren 2013an zehar eta ahal izan den einean 2014an.

Gazteriak etxebizitza arloan lan talde eta proiektu propio bat garatzea beharrezko ikusteko arrazoiak hurrengoak dira:

-Gaur egungo egoerak bultzatuta, jabetzako etxebizitzaren desjabetzeek indar handia hartzen ari direla gizartean, eta ez, berriz, alokairukoak edo poliziaren interbentziorik ez duten beste etxebizitza eskubide urraketek (gazteoi gehiago eragiten digutenak).

-Gazteon etxebizitza eta emantzipazio politikak ia existitzen ez direlako, ez behintzat “zuzkidura bizitoki”etaz haratago (ikusi aurreko urtean hauei egindako kritika).

-EGK-k gazteria eta etxebizitzaren inguruan egindako azken argitalpena edo proiektua 2010ekoa delako, eta ordutik egoera izugarri aldatu delako.

Beraz, hiru lurretan gazteak etxebizitza eskubidearen inguruan hitz egiteko batzeko ahalegina egin da. Hala ere, pasa den urtean martxan jarritako ekimenen helburua behin lortuta, 2014ean ekimen berriak martxan jartzea zailagoa izan da. Alde batetik, etxebizitzaren politika publikoaren inguruko eztabaida gelditu delako legebiltzarrean (2013an EGK-k agerraldia egin zuen) eta bestetik, enpleguak arlo honetan suposatu duen lan karga handiagatik.



Helburuak

HELBURU OROKORRA

Etxebizitza eskubide subjektiboa den einean defendatu, herri-hiritar guztientzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten duten gazteentzako. Gazteriaren egoera bereiztua gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK

- Gazteak eta gazte elkarteak etxebizitza arloaren inguruan batuko dituen eztabaida gune bat sortu eta egonkortu.
- Administrazio/instituzio ezberdinek martxan jarritako etxebizitza politika publikoak hausnartu eta erakundeen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Eztabaida gunean sortutako ekimenei jarraipena eman eta honen funtzionamendua kudeatu eta bultzatu.

Hartzaileak

- Gazte elkarteetako kideak (EGK-ko kide direnak eta ez direnak) eta norbanako gazteak.
- Erakunde politikoak, Jaurlaritzako Etxebizitza eta Garraio Sailburuordetza eta Legebiltzarra.
- Jendartea orokorrean eta gazteak bereziki.

Ekintzak

ETXEBIZITZA PLAN ZUZENDARIA ETA LURRALDEKAKO BILERAK

2013an Etxebizitza Plan Zuzentzailearen prosezua parte-hartzailearen zenbait ekintza bete zirelarik, behin plan hau argitaratuta EGK-k gazteekin honen irakurketa egin nahi izan zuen, alde batetik gazteei informazioa helarazteko eta bestetik haien iritzia jasotzeko.

-2013/02/19_Gasteizen

-2014/02/20_Donostian

Bilera hauetan parte-hartzea oso eskasa izan zenez, eta martxan jarritako politika publikoetan eragin urria izan zitekeenez, ez zen ekimenarekin aurrera jarraitu. Horregatik, 2015erako hau izango da erronka.

III GAZTE PLANAREN ETXEBIZITZA NEURRIEN IRAKURKETA

Eusko Jaurlaritzaren IIIGaztePlana onartu baino lehen, honen zirriborroa EGK-rekin kontrastatu nahi izan zuen. Plan honen barruan, beste arloetaz gain, etxebizitza alorreko neurrien kontrastea egin zen. Neurri hauek zuzenean etxebizitza plan zuzentzailetik hartuak zirenez, aurreko bileretan landutakoa baliatu zen kontrastea egiteko.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ZUZENDARIAREKIN BILERA

Miren Saratxaga, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendariarekin egin zen bilera



azaroaren 12an. Bilera honen helburua harekin lehen harreman bat egitea izan zen, hemendik aurrera enplegu arloan egiten den bezala politika publikoen inguruan interpelazio zuzen bat izateko Jaurlaritzarekin. Zuzendariak gazteei zuzenduriko neurriak zehaztu zituen eta EGK-k orain arte egindako lana.

Horretaz gain, Jaurlaritzak antolatuako Etxe Hutsen jardunaldian parte hartu izan zen hartzaile gisa.

ETXEBIZITZA HIRUBURUA GASTEIZKO GAZTE ASTEAN

Gasteizko Gazte Astearen barnean, hiru topaketa antolatu ziren gazte, teknikari eta politikarien artean. Haietarik bat etxebizitza gaia jorratzeko izan zen (urriak 16an), Gasteizko Gazte Planaren barnean planteaturiko neurri zehatzak landuz. Hauetaz gain, Eusko Jaurlaritzak Plan Zuzentzailean barnebilduko “masoveri urbana” landu zen baita ere. Bertara 26 lagun gerturatu ziren, espero ziren hiru perfiletakoak. Ekarpenak interesgarriak ziren eta politikari zein teknikariek positiboki baloratu zituzten gazteen proposamenak.



1.2. Gazteak eta Enplegua lan taldea

Deskribapena

Luze da EGK-tik gazteriaren prekarietatea salatzen dela. Ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik gazteek pairatzen zituzten baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo ditu gazteak eta bideratzen ari diren enplegu erreformek ez dute prekarietatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da gazteek, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun propio bat ere ematea.

2013an Gazteria eta Enplegua lan taldea osatu zen. Diskurtso sakon eta indartsua landu zen, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu zen. Aurten, ildo bera jarraitu nahi izan da eta egindako ekimenak areagotu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Gazteriaren perspektiba batetik enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren aldaketa eta eskubide murrizketak hausnartu, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gure egoera aztertu eta gazteok eskubide osoko subjektu gisa aintzakotzat hartzea defendatu.



HELBURU ZEHATZAK

- EGK barruko enplegu lan taldeari jarraipena eman eta gazte elkarte-eragile gehiagori zabaldu.
- Gazteen enplegurako politiken inguruan hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteen prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz (Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Programa, Aldundien Gazteen Enplegu planak, Gazte Planak...)
- Gazteen lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatuz.
- EGK-ren baitan material propioa garatu.
- Administrazioa gazteria eta enplegu arloen artean zubi lana egin.

Hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldeko kide aktiboak: Federación Vasca de Junior Empresa, CCOO, JSE, Ezker Anitza, Iratzarri, JOC, Ikasle Abertzaleak, gazteak haien izen propioan eta EGK barneko beste elkarteak. Hauetaz gain, EGK-koak ez diren elkarteetako gazteek parte hartu dute, hala nola ESK, Alternativa, eta abar.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte eta gazte taldeak.
- Administrazio/instituzio ezberdinen ardura karguak, bereziki Enplegu Sailak.
- Jendartea oro har eta gazteak bereziki.

Ekintzak

Lan taldearen dinamika hurrengo da: gutxi gora behera hilabeteen behin bildu, Gasteizen eta Bilbon tartekatuz, eta maizago gai bereziren bat baldin badago lantzeko.

Bilerak irekiak dira eta nahi duten gazte guztiak etor daitezke, gaiak proposatu eta gaien inguruan eztabaidatu. Aurten, **lantaldeak 7 bilera orokor** egin ditu urtean zehar. Hauei banakako bilerak gehitu behar zaizkio.



1. ADMINISTRAZIOEN GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLANEN HAUSNARKETA

Lan taldearen ekimen nagusia administrazio ezberdinekin martxan jartzen dituzten edo jarri nahi dituzten neurri eta planak hausnartzea da, hauetan gazteak zein toki daukaten, zer nolako neurriak esleitzen zaizkien eta hauen inguruan duten iritzia jaso eta administrazioei helarazteko.

- **EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU PLANA.** Aurreko urteetan bezala, oraingoan ere hausnarketa egin izan da, idatziz argitaratu ezin izan bada ere. 2013ko enplegu planareki ko aldaketa asko ez dira izan aurten eta Enplegu Zuzendariari egindako ekarpenak ez dira oso ezberdinak izan. Gehien bat, informazioa eskatu zaio neurri berrien inguruan eta interpelazioa Lehen Aukera programan zentratu da. Horretaz gain, aurreko urteko planaren ondorioen aurkezpena jarraitu zen legebiltzarrean



Sailburuak egindako agerraldian.

Eusko Jaurlaritzarekin harreman jarraia izaten da, Enplegu Zuzendaritzarekin hain zuzen ere. Aurten, gai ezberdinak jorratzeko 4 bilera egin izan dira eta fruitu emankorrak izan dituzte, aurrerago azaltzen den bezala.

• **EUSKO JAURLARITZAREN IIIGAZTE PLANA.** III Gazte Plan honetan enplegu arloari garrantzi handia eman zaio, eta enplegu planaren baitan gazteei zuzenduriko neurriak batu ditu. Horregatik, Jaurlaritzak horrela eskatuta, ekarpenak egin izan zaizkio lan taldean landutakoa batuz.

• **BIZKAIKO GAZTEEN ENPLEGU PLANA.** 2012ko gazteen enplegu planarekin hasi zen dinamika bera jarraitu da 2014ra arte. Hainbat aldiz eskatu den bilera lortu ez izatean, hausnarketa dinamikatik ezin izan da interpelazio dinamikara pasatu eta, beraz, berriz ere lan taldean enplegu plana komentatu eta hausnarketa txosten bat egin izan da, hobekuntza proposamen eta gomendioekin.

Oraindik eskatutako bilera eta aurreko urte guztietako enplegu planen emaitzen zain gaude, ez baitzikigute erraztu.

• **GAZTEIZKO IIIGAZTE PLANA.** Gasteizko Udalak egindako gazte planaren baitan enplegu arloak indar handia izan du, eta honi ekarpenak egin zaizkio. Ekarpene hauek egiteko, EGK-ko teknikarien lanketa, lan taldearen hausnarketa eta GazteToparen analisia baliatu dira, batu izan diren hiru ikuspuntu anitz bezala.

Horretaz gain, Gazte Astearen baitan HIRUBURU bat antolatu zen enplegu neurri zehatzak lantzeko gazte, teknikari eta politikarien artean, urriaren 14an. Honetara 30 bat pertsona gerturatu ziren eta egindako ekarpenak oso baliagarriak izan ziren (Ikusi GazteToparen memoria).

2. LEHEN AUKERA, GAZTEEN LEHEN LAN ESPERIENTZIA BULTZATZEKO PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzak 2013an egindako enplegu planaren baitan, Lehen Aukera izan zen neurri berrietako bat. Honen helburua gazteei lehen lan esperientzia bat eskaitzea zen, eta EGK-k Jaurlaritzarekin egindako bileretan honen inguruko informazioa eskatu zuen hainbatetan, baina azkenik prentsaren bidez ezagutu zituen programaren gora beherak.

Lan taldeko kide batek proposatuta, neurri hau lantzea erabaki zen, hurrengo pausuak emanez:

1/ EGK-tik gutun bat bidali zitzaien bai Sailburuari eta baita Sailburuorde eta Enplegu zuzendariari Lehen Aukera programa honek barnebiltzen zituen gorabeheren aurrean iritzia plazaratuz eta neurriaren zehaztasunak gazteentzako kaltegarriak izan ez zitezen eskatuz. Gutun honek ez zuen idatzizko erantzunik jaso eta Jaurlaritzak neurriaren zehaztasunak bere horretan mantenduko zituela esan zuen bilera batean.



2/ Aldaketarik egiteko intentziorik ez zegoela ikusita, lan taldeak gaia landu zuen “Lehen Aukera: ez lehena, ez aukera” manifestua plazaratu zuen.

<http://linksito.com/4g14>

Manifestuak 27 atxikimendu baino gehiago batu zituen eta egindako prentsa aurrekoaren ostean prentsan ohiartzun handia izan zuen.



3/ Banakako gazteen iritziak eta esperientziak jaso ziren, kasua kasu programaren iritzi zabalagoa egiteko. Honetaz gain, programan parte hartzen zuten enpresen berri izan zela eta, gazteen iritzia helarazi nahi izan zitzaaien haien partez ere informazioa jaso ahal izateko programaren garapenaren inguruan. Ha gutun baten bitartez egin nahi izan zen, baina azkenean, lan taldeak gutuna idatzi bazuen ere, ez zen bidaltzera heldu.

4/ Jaurlaritzak, bere kabuz, manifestuan egindako proposamenak ardatz hartuta, Legebiltzarrean **programaren bigarren deialdia aldatuko zuela esan** zuen. Bigarren deialdia kaleratu baino lehen, EGK-ri egin nahi zituen aldaketak komentatu zizkion eta lan taldean hitz egin ziren (uda aldera izan zenez, ezin izan zen bilera zehatzik egin eta den mail bidez gauzatu zen).

5/ Bigarren deialdian egindako aldaketa asko eta asko manifestuan eskatutakoarekin bat zetozeela ikusirik, eta EGK-k gauzak gaizki egiten direnean salatzen dituen bezala ongi egiten direnean txalotu behar direla iritzita, **gutun ireki bat argitatu zen**. Bertan, aldaketen berri ematen zen eta administrazioaren norabide aldaketa txalotzen zen.

<http://linksito.com/4g15>

Gutun hau web orrialdean argitaratu zen eta emailaz bidali zen administrazio, elkarte eta prentsara.

6/ Urte bukaeran, Jaurlaritzak Gazteriaren Kontseiluari ekarpen gehiago eskatu zizkion eta bigarren deialdiarekin izaten ari ziren arazoak plazaratu. Hala ere, gazteentzako lortutako hobekuntzetan atzera ez egiteko konpromezua azaldu zuen.



3. GAZTEONTZAKO ENPLEGUA, ZEREN TRUKE?

Aurreko urtean hasitako prozesuarekin aurrera egin da aurten ere, gazteok gure proposamenak egitea. Horretarako, bi bilera zehatz egin izan dira (**ekainaren 12an eta irailaren 25ean**), eta lan teknikoa egin izan da proposamenak jasoz leku ezberdinetatik.

Saio hauetan landutako dokumentua oraindik ez dago bukatuta eta datorren urtear begira osatu nahi da.



1.3 Emperdedores. La cara B del emprendimiento juvenil

Deskribapena

Azken urteotan gazteriaren langabeziaren soluzioen inguruko diskurtsoak bi ildo nagusi hartu ditu, eta bi ildo hauek bideratzen ari diren politika publikoetan indar handia hartzen ari dira: EKINTZAILETASUNA eta ATZERRIRA LAN BILA JOATEA.

Hala ere, gaur egungo eredu sozioekonomikoaren barruan, bi irtenbide hauek ondorio latzak izan ditzakete gazteentzat, bai behintzat politika publiko bezala bultzatzen direnean (aukera pertsonala denean, aitzitik, guztiz errespetagarria), soluzio hauen sustapenean oinarritutako politika publikoak baitira, eta ez dute eskubideen urraketan erreparatzen.

Beharrezkoa da, beraz, hauen inguruko hausnarketa bat egitea eta beraien beste aurpegia gizarteratzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Ekintzailetasuna eta autoenpleguaren aitzakiapean aurrera eramandako politika publikoek gazterian sortarazten dituzten eskubideen urraketa eta beste ondorioen salaketa egitea.

HELBURU ZEHATZAK

- Ekintzailetasunaren inguruko politika publikoen argiak eta itzalak hausnartu.
- Instituzioen ardura interpelatu.
- Gazteon ahotsa bideratu gai honetan
- Salaketa kanpaina bideratu

Hartzaileak

- Kargu politikoak eta administrazioa.



- EGK barruko elkarteak eta bereziki bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizarte oro har eta gazteok bereziki.

Ekintzak

Proiektua gauzatzeko bi hausnarketa ildo nagusi landu dira: alde batetik gazteentzako enplegu planetako ekintzailatzaren barruan sailkatutako neurriak eta legeria hausnartu da eta, bestetik, gazteak elkarriketatu dira.

Elkarriketa hauek 30 urtetik beherako ekintzaileei egiteaz gain, langabezian eta prekarietatean dauden gazteei eta baita arlo sozioekonomikoko gazte elkarteetako kideei egin zaizkie eta beste hainbeste gazterekin kontrastatu izan dira ondorioak.

Honetaz gain, ikerketak eta beste moduko dokumentazioa ere jaso da, besteak beste, Gazteriaren Euskal Behatokiak argitaratutako ikerketak eta formazio jardunaldiak. Guzti hau 2013 eta 2014 urteetan zehar egin izan da.

1. Enplegu planen hausnarketa:

-Eusko Jaularitzaren Enplegu Sustapen Programa barruko 3. ardatza "fomento del empleo juvenil".

-Eusko Jaularitzaren Enplegu Sustapen Programa barruko 3. ardatza "fomento del emprendimiento".

-Bizkaiko Aldundiaren Gazteentzako Enplegu Plana 2012.

-Bizkaiko Aldundiaren Gazteentzako Enplegu Plana 2013.

-Gasteizko Enplegu Plana.

-Arabako Enplegu Planik ez da topatu.

-Gipuzkoako Enplegu Planik ez da topatu (eskualdekoak ez dira hausnartu)

2. Lege eta dokumentu ofizialen hausnarketa:

-Europako Batzordearen ekintzailatza liburu berdea.

-Espainiako ekintzailatzaren liburu zuria.

-Ekintzaileentzako laguntza eta internazionalizazio legea.

-Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko legea.

-Ekintzailatzaren Institutioarteko Plana.

3. Elkarriketak (taldean eta banakakoak, kasuan kasu):

-Gazte ekintzaileei eginiko elkarriketak: 3+1+1=5

-Gazte prekario eta langabetuei eginiko elkarriketak: 3

-Gazte elkarteetako gazteak: 6

4. Ondorioak


Ondorioak plazaratzeko txosten bat argitaratu da, eta honen berri emateko laburpen bideo bat egin da.

**BIDEOA HEMEN IKUSI:**

<https://www.youtube.com/watch?v=6ld0jNWSzoc>

**ONDORIO TXOSTENA IKUSI HEMEN:**

<http://www.egk.org/adjuntos/PRENTSA/TXOSTENA-ekintzaitelza.pdf>

**5. Zabalpena**

Ondorio hauen zabalpena mailing bidez, Piztu! Buletinaren bidez eta sare sozialen bidez egin da batik bat. Hala ere, komunikabideetara heltzeko prentsa-ohar bat bidali zen, eta 160bat gazte elkarte, politikari eta teknikariei fisikoki bidali zitzairen korreoaz.

Txostenaren inguruan egindako prentsa agerpenak ikusteko begiratu prentsa jarraipena.

1.4 Prekarietatearen prebentzioa**DESKRIBAPENA**

Azken hamarkadetan, eta bereziki azken urteotan gazteen enplegua sustatzeko aitzakipean hauen lan prekarietatea sustatu da baita ere. Larriena, prekarietatea sustatzen duten neurriak administrazioetik bertatik bultzatu izan direla askotan. Alabaina, administrazioa ez da beti jabetzen haien ekimenekin bultzatzen duten egoeraz eta askotan, esanda ere, bere horretan jarraitzen du.

Horregatik guztiagatik, administrazioari zuzendutako ekintzak bideratu beharra dago. Ekintza hauek gazteriaren enplegua sustatzeko neurrien arduradun eta politikariei zuzenduak izan beharko lukete bereziki, hauek gazteen prekarietatearen inguruan ezagutza eta sentzibilizazio handiagoa izateko eta horrek haien jardueran eragina izateko, ondorioz, gazteen prekarizazioa murrizten lagunduz.

HELBURUAK**Helburu orokorra:**

Gazteen lan prekarietatearen inguruan gizartea eta enplegu politika publikoetan eskumenak dituzten politikari eta teknikariak sentzibilizatzeko, prekarietate hau sustatzen duten ekintzak ekiditen lagundu.

**Helburu zehatzak:**

- Politikari eta teknikarientzako sentzibilizazio saioak prestatu eta eskaini.
- Gizarteari begira sentzibilizazio kanpaina bat egin gazteriaren prekarietatearen inguruan.

EKINTZAK

Proiektua gauzatzeko hurrengo hiru lan ildoak landu dira:

1. RECACCIONA BIDEO LEHIAKETA
“gazteak eta enplegua” gaia landuz.
Komunikazio memoria ikusi.

RecAcciona lehiaketaren bideoak eta emaitzak hemen ikus daitezke:

**2. SENTSIBILIZAZIO ETA FORMAZIO SAIOAK:** alde batetik gazteei eta bestetik gazteen enpleguaren gaian ardura duten teknikari eta politikariei zuzenduriko saioak antolatu nahi izan dira. Hauek dira 2014an zehar antolatutakoak:

-UEUko unibertsitateko udako ikastaroen testuinguruan “Gazteriaren erronka sozioekonomikoak gazteen ikuspuntutik” ikastaroa antolatu da, Eibarren uztailaren 16 eta 17an. Ikastaro hau gazteria lan arloan lan egiten duten politikari eta teknikariei, sindikatueta kideei, gazteei eta gaian interesa zuen edonori zuzendu zen.

informazio guztia hemen ikusgai: <http://www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroa/677/Gazteriaren+erronka+sozioekonomikoak+gazteen+ikuspuntutik>.

Ez zirenez Ikastaroa garatzeko behar ziren gutxieneko izen emateak lortu, ikastaroa bertan behera geratu zen, baina datorren ikasturtera begira, UEUrekin batera eta gai honen inguruan, beste zerbait antolatzeko atea irekia dago.

-Bidasoa Aktivako langile birekin bilera egin zen, EGK-k landutakoa azaldu eta behin-behineko gazteen enpleguaren inguruko proposamenak aurkezteko. Donostian, otsailaren 21ean.

-LAN bila? MUGI HADI, GAZTE: maiatzak 17an, **Irunen**, gazteei zuzenduriko jardunaldi baten testuinguruan “Gazteen lan baldintzak” tailerra dinamizatu zen. Bertan, unibertsitate ezberdinetako ikasleek parte hartu zuten.



-GAZE: apirilak 8, GAZEekintzaileko kideekin lan saio bat antolatu zen **Donostian**. Egindako lana gazteen ekintzailetzaren argi-ilunetan fokalizatu zen tailer praktikoa eta parte-hartzaile baten bitartez. Bertara, Gazeko kide diren hainbat unibertsitateetako gazteak gerturatu ziren.



-ERMUAko Gizarte Hezkuntza mahaira gonbidatu zen EGK, urriaren 23an egindako jardunaldi batzuetan “Euskal Gazteriaren egungo egoera sozio-ekonomikoa” hitzaldiarekin Mahainguru Soziolaboralean parte hartzeko. Bertara Ermuako ume eta gazteekin lan egiten duten irakasle, guraso, gizarte langile eta beste teknikari batzuk joan ziren.

-Gazteen lan eskubideen inguruko mahai ingurua.

EGK-k Gasteizen antolatutako Gazte Astearen baitan, sindikatuen arteko mahai inguru bat antolatu zen gazteen lan eskubideetaz hitz egiteko. Hitzaldi hau, gazteei zuzendurikoa, sindikatuen artean gazteriak pairatzen dituen hainbat arazoren inguruan eztabaidatzeko balio izan zuen.



-LANBIDE: Eusko Jaurlaritzarekin izandako harremanaren ondorioz eta gazteen enplegurako neurriei egindako ekarpenek martxan jarritako aldaketa prozesuaren ondorioz, Lanbideko orientatzaileei zuzenduriko gazteen enpleguaren inguruko formazio saioak garatzeko aukera mahaigaineratu da. Oraingoz, proposamena baloratzen ari dira Jaurlaritzan eta datorren urtean zehaztuko liratezke.




3. KANPAINA: www.prekarioka.org

Kanpaina honen helburua gazteok pairatzen dugun lan prekarietatea modu ez-ohiko batez salatzea da. Horretarako, OKA JOKOaren irudiari jarraituz, webgune batean prekarietatearen aurpegi anitzak aurkeztuko dira eta baita gazteoi zuzenduriko lan eredu bereziak ere.

Hau egiteko, ikerketa eta hausnarketa lan handia egin behar izan da. Horregatik, kasila bakoitzean azalpen bat agertzeaz gain, hainbat eta hainbat esteka interesgarri agertzen dira, bai kontratazio formulen eta baita ikerketa eta gizarte mugimenduek martxan jarritako ekimenen informazioa emateko.

Web orri honen zabalpena ez da oraindik egin, 2014urtean zehar materiala garatu izan baita. Datorren urtera begira, urtarrila aldera egingo da zabalpena eta ondorioak jasoko dira.

Ekintza honen ondorioak ez dira oraindik argitaratu, baina 2015eko lehen parte aldera argitaratzea espero da, alde batetik www.egk.org eta bestetik www.prekarioka.org webgunetan.



4. ZABALPENA: ekintza ezberdinen zabalpena mailing bidez, www.egk.org webgunearen bidez, Piztu! Buletinaren bidez eta sare sozialen bidez egin da batik bat. Horretaz gain, lankidetzak izan duten beste entitateek ere egin izan dut zabalpen propioa.

1.5. Protokoloak: gaztetxeak eta lan istripuak

Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak duela urte asko jarri zituen martxan gazteoi zuzuenen eragiten diguten zenbait errealitate salatzeako protokoloak. Horrela ba, gaztetxeak ustarazteen ostean eta lan istripu baten ondorioz gazte bat hildako suertatu ostean aktibatzen diren protokoloak daude martxan gaur egun. Protokolo hauek zehazten dutena hurrengo da: gertaera hauek ezagutu eta gero zein den ekiteko bidea eta norena ardura.

Horrela ba, 2012.urte hasieran gaztetxeen ustarazteen protokoloa eguneratu eta martxoko batzar orokorrean onartu zen. Urtetan bizirik daraman edo sortu berria den gaztetxe bat ustarazten denean eta gaztetxeak berak salatzen duenean, EGK-k aurretik hitzartutako prentsa ohar bat kaleratzen du.



Lan istripuen protokoloari dagokionez, eguneratze prozesuan dago egun gazteen enplegu ereduetan izaten ari diren aldaketen harira. Orain gazteen enpleguaren inguruko hiru hausnarketa ildo landu direla (atzerirratzea, ekintzailatza eta prekariedade formulak) hauetara egokitu nahi izan da protokoloa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA: (gaztetxeak)

Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteen autogestioan oinarritutako proiektuek gizartea eraikitzeak duten garrantzia azpimarratu eta berauetan parte hartzeari babesa eman.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gaztetxe bat uztarazten den bakoitzean hedabideetan berau salatu eta EGK-ren posizionamendua agertu.
- Proiektu hauei babesa aurkeztu.

HELBURU OROKORRA: (lan istripuak)

Gazteen lan istripu eta heriotzak eragiten dituzten prekarizazioa eta lan baldintza txarrak salatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k dituen hedabide propioen bidez EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egin.
- Ardura politikoak interpelatu lan segurtasun eta duintasunean.
- Protokoloa eguneratu, aberastu eta idatziz jaso.

Hartzaileak

- EGK barruko taldeak eta beste gazte, gazte elkarte eta eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

Ekintzak

GAZTETXEEN PROTOKOLOA

2014.urtean zehar protokoloa Barakaldoko gaztetxearen utzarazpenean jarri zen martzan, abustuaren 28an.

<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/493/Euskadiko%20Gazteriaren%20Kontseiluak%20Barakaldoko%20Kobazulo%20gaztetxearen%20utzarazpena%20salatu%20du%20.html>

LAN ISTRIPUEN ONDORIOZ HERIOTZEN PROTOKOLOA

Proiektua burutzeko bi ildo garatu dira: protokoloa gauzatu (lan-istripu baten ondorioz gazte bat hiltzean prentsa ohar bat publiko egin) eta protokoloa eguneratzeko hausnarketa bideratu (enplegu arloan gauzatutako hausnarketen harira).

Protokoloa:



30 urtetik beherako gazte bat hil egiten denean lan istripu baten ondorioz, EGK-k aurretik hitzartutako prentsa ohar bat kaleratzen du. Prentsa ohar honen helburua prekarietateak gazteak hiltzen dituela plazaratzea da, eta prekarietate honen ezaugarriak ezagutaraztea.

Aurten, tamalez, birritan jarri behar izan da martxan protokoloa bi gaztek bizitza haien lanpostuan galdu dutelako:

Gasteizen uztailaren 4an.

<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/492/Lanpostuan%20zendu%20den%20gaztearen%20heriotza%20salatu%20du%20Gazteriaren%20Kontseiluak.html>

Elorrioren urriaren lehenean.

<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/506/Lanpostuan%20Elorrioren%20zendu%20den%20gaztearen%20heriotza%20salatu%20du%20Gazteriaren%20Kontseiluak.html>

Protokoloa eguneratzeko hausnarketa

Gazteek lan baldintza prekarioak pairatu dituzte betidanik, eta askotan prekarietate honek lan-istripuen ondorioz heriotzak sortu ditu. Orain, prekarietate baldintzak okertu eta orokortu egin dira.

Hala ere, egoera aldatu egin da zenbait zentzutan, gazteei ezartzen zaizkien enplegu ereduen ondorioz. Modu honetan, ekintzailetasunak eta lanagatik atzerirratzeak “ohiko” lan baldintzetan aldaketak dakartzate, eta hauek prekarietatean duten eragina aztertu nahi izan da.

Horretarako, prekarioka.org, #SOSgazteak eta “Gazte, Emprendes o Empierdes #EkinalaPlof” proiektuak gauzatu dira eta protokoloa aldatzeko eztabaidan barneratzeko zenbait gai aipatzen dira hauetan.

Protokoloa aldatzeko behin behineko proposamen bat garatu da aurten eta orain eztabaidarako mahaigaineratu da. Ekarpenak egin eta onartzen direnean Batzar Orokorrean aurkeztuko da bere onarpenerako.

Protokoloa EGK-ren Batzar Orokorra onartzen duenean publiko egingo da eta erabiltzen hasiko da, bitartean aurreko protokoloa erabiltzen jarraitu da.

1.6 Finantziazioa bilatu: Gazteen Parte-Hartze Inkubadora

Deskribapena

Azken urteetan EGK-k Europar Komisioak bultzatutako Juventud en Acción programan dirua eskatu du proiektu ezberdinetarako. Programa honetatik eman izan diren dirulaguntzak gero eta urriago izanik, eta aurten Erasmus+ programaren barruan sartu delarik, ezin daiteke jakin finantziazio iturri hau irekita jarraituko duen. Horregatik, beste diru iturri batzuk bilatu beharra dago, azken urteetan administrazioek dirua proiektu konkretuetarako ematen dutela jakinda.

Honen harira, “Gazteen Parte-Hartze Inkubadora” proiektuaren ideia sortu zen, EGK-k lantzen dituen arloen zeharkakotasun ikuspuntu batetik abiatuta. Proiektu honek, adin tarte baxueneko gazteei elkarteak eta EGK-ren arloak hurbiltzea bilatzen du, eta baita normalean ahots gutxien duen gazteria tarte honen zeresanak politikariei helaraztea.



Helburuak

Helburu orokorra:

EGK-ko alorrak eta eginkizunak indartuko dituzten proiektuak garatu finantziazio propioa bilatuz.

Helburu zehatzak:

- EGK-ko arlo ezberdinekin batera “gazteen parte-hartze inkubadora” proiektua diseinatu eta honen bidegarritasuna aztertu, bereziki Parte-Hartze arloarekin.
- Finantziazio iturri ezberdinak aztertu eta eskaerak bideratzea baloratu.

Ekintzak

Aurten ezin izan da proiektu hau garatu, etxebizitza eta enplegua arloak izan duen lan gainkargagatik: alde batetik, bi errelebo eman behar izan dira Gasteizko egoitzean, haietariko bat GasteaAstea gauzatu eta bi aste lehenago soilik. Beste aldetik, Gasteizko egoitzako lehio eta ateak aldatu dira eta lan osasunaren protokoloa eguneratu. Honek eragin izan du egoitzan lan handia egin behar izana (materiala babestu obran ez kaltetzeko, materiala antolatu behin obrak bukatu, obrak kudeatu eta egoitza berrantolatu lan osasuneko arauetara).

Proiektu hau datorren urtean garatzea espero da.



2. HEZKUNTZA

2.1. HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1.1. Astialdi Foroen Koordinazioa

Deskribapena

Astialdi Foroa (AF) EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sensibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Orohar, balioetan oinarritutako heziketa bultzatu, Astialdiari lotutako elkartegintza indartu, eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak sustatu nahi dira.



Gaur egun Astialdi Foroaren baitan 15 eskola, 8 elkarten federazio, astialdiko elkarte 1 eta 2 fundazio daude, guztira 10.000 gazte baino gehiago dira 26 erakunde hauen atzean daudenak. Gazte horiei eragiteak, beste horrenbeste familia, eta eragileri eragitea da, auzo eta herri mugimenduan zuzenean eragitea hain zuzen.

Astialdi Foroaren koordinazioa lurraldeka egiten da, foro bakoitzak bere interesak, beharrak, erritmo eta izaera propioa dauzkalako. Hala eta guztiz ere, gai zehatzetarako koordinaketa bateratua egon da: astialdiko kualifikazio berriak eta sensibilizazio kanpaina.

Beste eragileen arteko harreman zabalaren alde gaude. Hau da, astialdian ahalik eta eragile gehienak lankidetzan aritzea nahi dugu: astialdi taldeak eta sareak, astialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten eta astialdi hezitzaile filosofia daukaten enpresak, eskolaz kanpoko jarduera-egitarauak dauzkaten ikastetxeak, gurasoak (elkarten bidez), batzordeak, etab. Beharrezkoa da indarrak batuz joatea eta lanerako irizpide eta helburu komunak izatea.

Helburuak

Orokorrak:

- Astialdi Foroko koordinazioa ebaluatzea eta hobetzea.

Bizkaiko Foroan ideiak hobeto ordenatzeko autokritika egin da. Denbora asko galtzen da eztabaidetan eta hitzetik ekintzetara pasatu beharra dagoela aipatu da. Hala ere ebaluazioa ona izan da, aurten Unibertistatera hurbiltzeko ahalegina egin izan dela zabalpen ekintza bat aurrera eramateko eta baita BFA-rekin batera Hezkuntza eta Aisialdia prozesuarekin lanean jarraitu delako.

Arabako Astialdi Foroan ebaluazioa ona izan da. Forora elkarte berri bat sartu egin da zabalpenerako egindako ahaleginen ondorioz. Hurrengo urtera begira Arabako instituzioekin harremana sendotzeko proposamena hartu egin da eta horri eskainiko zaio denbora eta indar gehiago. Aurten zabalpen ekintza bat ere burutzearen garrantzia azpimarratu da hezkuntza formaleko esparrura hurbilduz.



Gipuzkoako Foroa ez dago bere momentu onenean. Eskolen Foro bat bilakatu izan da aurtun bai eragileen profila hori delako eta baita eskolen gaiek eztabaidagai bihurtuko delako hileror. Elkarleen parte-hartze baxuagoa ere nabaritu da eta horrek kalte egin dio 2014ko lan prozesuari, elkarre gutxi izanda 2-3ren faltan bileretan ez dira aurrerapausoak ematen. Hori dela eta urtariletik aurrera elkarleen konpromisoa eskatzen batzar garrantzitsua egingo da non urteko proposamen eta lan-ildoak.

- Astialdi Foroko lan taldea sendotzea.

Plataformak hiru lurraldeetako 26 erakundek osatzen dute, bakoitzak bere ideologia eta metodologia propioarekin. Bestetik, tamaina aldetik oso ezberdinak dira: batzuk erakunde handi baten babesean daude eta 3 soldatapeko dauzkate eta, beste batzuk, ordea, ez daukate liberatu bat bera ere. Plataformako ezaugarri hauek ahalegin handia eskatzen dute lantaldea koordinatzeko eta sendotzeko.

Hala eta guztiz ere, astialdi erakunde bezala, interes eta behar amankomun asko dauzkate eta hor dago gakoa taldea sendotzeko eta hauen inplikazioa lortzeko. Bestetik, nahiz eta parte hartzea nahiko erregularra izan, nabaria da zeintzuk diren elkarre bakoitzari interesatzen zaizkion gaiak, jorratzen denaren arabera, hauen parte hartzea handitzen edo jaisten delako.

Zehatzak:

- Esperientziak trukatu (Ikusi Ekintzak atala)
- Lan komuna egin (Ikusi Ekintzak atala)

Hartzaileak

Astialdi foroko eskolak, federazioak eta taldeak lurraldeka antolatuta:

ARABA: gaur egun 8 eragilek osatzen dute Arabako Astialdi Foroa.

- **Astialdiko eskolak:** Atsedeen eskola, Arduradun eskola, Gazteen gurutze gorriko astialdiko eskola eta Acción 21 eskola.
- **Koordinakunde eta Federazioak:** Atsedeen taldeak, Euskalerriko eskautak araba eta Arabako eskaut laikoa.
- **Astialdi taldeak:** azterlariak

BIZKAIA: gaur egun 13 eragilek osatzen dute Bizkaiko Astialdi Foroa.

- **Astialdiko eskolak:** Urtxintxa eskola, Itaka escolapios fundazioa, Gaztetxo eskola, Gazteen gurutze gorriko astialdi eskola, Aisiola – ikastolen elkarre eta Kurkudi.
- **Koordinakunde eta Federazioak:** Bizkaiko gaztetxoen koordinakundea, Bosko taldea federazioa, Euskalerriko eskautak Bizkaia, Kiribil sarea eta Amarauna sarea.



- **Fundazioak:** Aisi-hezi eta EDE fundazioa.

GIPUZKOA: gaur egun 5 eragilek osatzen dute Gipuzkoako Astialdi Foroa.

- **Astialdiko eskolak:** Larrunarri eskola, Urtxintxa eskola, Hezkide eskola, Mundo nuevo eta Eziko.

Ekintzak

2014 urtean zehar burutako ekintzak lurraldeka zehaztuta:

a) Arabako Astialdi Foroa:

2014an aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen udako kanpaina burutu da, aurten modu digitalean aurkeztu egin dira ekintzak egk.org atarian Astialdi Foroko webgunean sortzen zen bitartean transtzizio une bat bezala. Honekin batera informazio triptiko bat sortu egin da paperezko euskarria ez galtzarren eta hartzaileei informazio argia helarazteko. Aurten 17 taldek antolatutako 16 egonaldi plazaratu dira. (5 talde gehiago eta 2 ekintza gehiago).
- Aurten zabalpen ekintza bat burutu da Gasteizko EHU-ko kanpusean eskolen ikastaroen matrikulazio kanpainarekin batera. Hau irailaren 18an burutu izan da eta nahiz eta egunean bertan esperotako parte-hartzea ez izan, eskolek aitortu dutenagatik pertsona nahiko hurbildu izan dira eskoletara zabalpen ekintzan informazioa jaso eta gero.
- Astialdi Forora talde berriak sartzeko ahaleginekin Arabako Astialdi Foroan Arabako Eskaut Laikoa Federazioan sartzeari lortu egin da. Aurtengo bilera zein ekintzetan aktiboki hartu du parte federazioak eta gogotsu dago lanean jarraitzeko. Beste eragileak pozik daude Foroa handitzeaz. Hurrengo urtera begira foroa handitzen jarraitzeko ahaleginak egingo dira.
- Kualifikazioek sortuko duten eszenatoki berriari aurre eginez, eskolen arteko elkarlanean jarraitu da, urtarilaren 29an 3 lurraldetako Astialdiko eskolen bilera bat egin da iazko abenduan Eusko Jaurlaritzarekin landutako gaietan sakontzeko. Hortik aurrera ez dira topaketa gehiago burutu eskola mailan nahiz eta astialdi Foroetako bileretan beti aipatu eta landu. Kasu honetan ez daukagu berririk.
- Ekimen hauek aurrera eramateko Arabako Astialdi Foroa hilero bildu da. Gaur egun, Araban, 4 astialdi eskola, 3 astialdi taldeen federazio eta astialdi talde 1 daude. Guztira ia 2.500 gazte daude erakunde hauen atzean (300 bolondres eta 2.200 gazte gutxigorabehera).

**b) Astialdi Foroa Bizkaia:**

2014an aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen udako ekintzak egk.org atarian azaldu izan dira antolatutako taula baten bitartez eta lotura zuzenekin informazio puntuetara. Informazio hau buletin eta helbide ezberdinetara bidali egin da. Aurtengo Bizkaiko udako kanpainean, asko pasa dira eskuorria hartzera. Gidan 39 elkartek burututako 81 kanpaleku agertu dira. (iaz baino 4 elkarte gutxiago baina 9 ekintza gehiago jaso izan dira)
 - Astialdiko ikastaroei dagokionez Bizkaiko Astialdi Foroko eragileak, Leioako EHU-ko kanpusera hurbildu egin ziren irailaren 11n. Bertako Mikel Laboa plazan ikastaroen inguruko informazioa mahai bat jarri egin zen eta goizean zehar ekintza ezberdinak burutu ziren gazteon arreta eta parte-hartzea lortzeko. Gazte askok hartu zuten parte ekintzetan eta astialdi foroko webgunearen zabalpenerako sortutako erregelak banatu egin zirenez bisita asko lortu egin ziren eta beraz, zabalpen handia.
- 
- Aurten GORABIDE erakundeekin ez dugu haien hartzaileen eskaerarik izan astialdi taldeetan parte-hartzeko eskaerarekin. Baina harremana aprobetxatuz, udako kanpaineke ekintzetan zabalpena egin dugu.
 - Jolas eta Ekin erakundearekin aurten berriz ere elkarlana egon da. Hurrengo urtera begira Astialdi Foroekin batera formakuntza saio bat antolatzeko konpromisoa hartu egin da.
 - Bizkaiko Foru Aldundiak iaz martxan jarritako "Hezkuntza eta Aisialdia" prozesuaren barnean antolatutako topaketekin jarraitu egin da. Aurten 4 topaketa burutu egin dira bakoitzean gai monografiko bat landuz eta aztertuz. Aurten topaketen amaiera iritsi da baina hurrengo urtera begira prozesuan zehar bildutako eztabaidagaien fruitua ikusi behar da.
 - Astialdi Foroaren koordinatzailea Bizkaiko Astialdi Foroan parte-hartzen duen elkarte baten bitartez Astialdi Foroarekin koordinazio bilera bat izan du hala ere, behar izan denean, hitza izan dute Foroko bileretan.
 - Kualifikazioek sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da aurretik aipatutako 3 lurraldetako eskolen bileran. Horretaz gain aurten ez dugu Eusko Jaurlaritzarekin biltzeko aukerarik izan. Eskolan behin baino ez bildu arren, Astialdi Foroko bilera guztietan gai honen inguruan eztabaidatu egin da.

Bizkaiko Astialdi Foroaren lana aurrera eramateko Foroa hilean behin bildu da. Gaur egun, Bizkaian 6 astialdi eskola, 5 astialdi taldeen federazio (guztira 50 astialdi elkarte), eta 2



fundazio daude. Guztira 6.000 gazte inguru dira 13 erakunde hauen atzean daudenak (1.000 bolondres eta 5.000 gazte gutxigorabehera).

c) Astialdi Foroa Gipuzkoa:

2014an aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:


- Astialdi taldeen udako ekintzen zabalpena Arabakoa eta Bizkaikoa bezala, aurten egk.org atariaren bitarte zegin da. Bertan taula bat jaso da informazio eguneratuarekin eta informazio puntuetako estekekin. Gidan, 24 elkarte burututako 5 kanpaleku agertu dira (iaz baino 5 elkarte eta ekintza gutxiago)
- Astialdi Sarea elkarten elkarrekin, astialdi hezitzailearen ikuspuntua gizarte politiketan txertatzea du helburu. Astialdi Foroaren koordinatzaileak Astialdi Sarean lantzen diren gaiak hiru foroetara eramaten ditu hauek ere honen berri izan dezaten.
- Kualifikazio berriek sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da. Urtarrilaren 29an beste Astialdi Foroekin batera bildu dira Gipuzkoako eskolak; 3 astialdi Foroen arteko topaketan gaia landu egin da Foroko hilabeteko bileretan bezala. Eusko Jaurlaritzarekin biltzeko aukera ez dugu izan urte honetan zehar.



Gipuzkoako Astialdi Foroaren lana aurrera eramateko foroa hilero bildu da. Gaur egun, Gipuzkoan 6 astialdi eskola, 2 astialdi taldeen federazio eta astialdi talde bat daude (guztira 50 astialdi elkarte), eta. Guztira 3.000 gazte inguru dira 10 erakunde hauen atzean daudenak (400 bolondres eta 2.500 gazte inguru).

2.1.2. Udako kanpaina

Deskribapena



Urtero bezala, Kontseiluak astialdi taldeek antolatzen dituzten udako ekintzen zabalpena burutzen du Astialdi Foroko eragileekin batera. Aurten atal honetan aldaketa nabariak egon dira. Orainarte **udako ekintzen eskuorria "desplegablea"** egin eta zabaldu da, aurten ordea, formatua berritu eta digitalizatzea adostu da www.astialdiforoa.org webgunean informazioa txertatzeko helburuarekin. Webgunea sortzeko denbora behar izan denez, trantsizio une horretan www.egk.org webgunean eskegi da informazio guztia pdf formatuko dokumentuetan.

2014ko udako kanpaina 80 elkarten antolatutako 142 ekintzen zabalpena egin da.



Helburuak

- Astialdi taldeetako udako ekintzen zabalpena egitea
- Lurraldeko astialdi taldeak ezagutzera ematea
- Boluntario gazteen lana aintzat hartzea

Hartzaileak

- 6-18 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak.
- 18-30 urte arteko gazteak.
- Administrazio eta instituzioak.
- Astialdi talde, elkarte eta eragileak.

Ekintzak

2014ko udako kanpaina honetan zehar bi ekintza ezberdin burutu egin dira: informazio triptikoa eta udako ekintzen zerrenda.

1) Informazio triptikoa

Urteetan zehar astialdi taldeetako bolondresak antolatutako ekintzen berri emateko udako eskuorri luze bat argitaratu izan da, askotan ale asko soberan egon dira eta pertsona guztietara heltzeko eta ezagutzera emateko zailtasunak zituen. Aurten, Foroan luze pentsatu ondoren, Udako kanpainaren berri emango duen informazio triptiko bat osatzea adostu egin da. Askotan jendeak egiten dituen galera eta horiek argitzeko jarraibideak jaso nahi izan dira burutu den triptikoan. Honek ez du inolako urte markarik urteetan zehar erabilgarria izateko helburuarekin.; hauek urtez urte erabilgarriak izango dira ez baitaukate urte markarik.

Euskarri honekin oraindik erabilgarria den paperezko formatua ez galtzea lortu da eta interneteko informazioa non eta nola eskuratzeko leihoa zabaltzea.

Udako kanpainaren nondik norakoak pdf formatuan eskuragarri daude egk.org eta astialdiforoo.org webguneetan.

2) Udako ekintzen zerrenda

Udako ekintzen eskuorria digitalizatzea erabaki egin da 2014ko udako zabalpenerako. Hori dela eta aurten www.egk.org webgunean Gipuzkoako astialdi taldeek antolatutako ekintzak taula batetan jaso egin dira, bertan orainarte azaldutako datuetaz gain (udaleku mota, hizkuntza, adina, astialdi taldea,...) harremanetarako esteka zuzenak sartu egin dira; hala nola: helbide elektronikoa, webgunea, sare sozialak,...

Taula hauek interneten egon dira eta kontsultatzeko aukera egon da eta baita pdf formatuan deskargatzeko.

Hurrengo urtetik aurrera, www.astialdiforoo.org webgunean argitaratuko dira formatu dinamiko baten bitartez. Aldaketa honekin erraztasuna eta hurbiltasuna azaldu nahi da.



2.1.3. Astialdiko ikastaroen zabalpena

Deskribapena

Udako ekintzak alde batera utzita, ikasturte berriaren hasierarekin Astialdiko ikastaroen unea heltzen da. Astialdiko begirale, zuzendari edota gizarte animatzaile izateko izen emateen deialdia zabaltzen dute EAE-ko eskolek.

3 Astialdi Foroetako eskolek eskaintzen dituzten ikastaroak aurten lehen aldiz, www.astialdiforoo.org webgunean jaso egin dira aplikazio dinamiko baten bitartez. Bertan, 44 ikastaro ezberdin atera dituzte Foroko 15 eskolek.



Eskolen eskaintza gizarteratzeaz gain aurten bai Araban eta bai Bikaian zabalpen ekintza espezifikoak burutu izan dira, biak unibertsitate esparrura hurbilduz. Iaz bezala, formakuntza saio horien atzean dagoen heziketa lana, filosofia eta astialdia ulertzeko modua ezagutzera emateko iaz sortutako bideoak berriro ere gizarteratu dira.

Helburuak

- Astialdi eskolek eskaintzen duten formakuntza lana hedatzea.
- EAE-ko eskolen hezkuntza kalitatezkoa dela aldarrikatzea.
- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Hartzaileak

- 17 urtetik gorako gazteak.
- Astialdi Foroetako eragileak.

Ekintzak

EAE-ko Astialdi Foroetan biltzen diren astialdi eskolek lehenengo aldiz haien ikastaroak www.astialdiforoo.org webgunean argitaratu egin dituzten gida interaktibo baten bitartez. Eskaintza hori 17 urtetik gorako gazteei bideratua egon da internet bidezko plataforman berebiziko presentzia izatea beharrekoa zen.

Ikastaroen informazio zehatza eskaini da: ordutegia, epeak, hizkuntza,... eta interaktiboa izanda eskolen webguneak eta helbide elektronikoak klik baten bitartez eskuragarri zeuden.

Astialdi Foroko webgunean argitaratzeaz gain, EGK-ko webgunean eta sare sozialetan zabaltzeko egin da, baita astialdi esparruko buleitin eta webgune ezberdinetan ere.

Eskolen eskaintza zabaltzeaz gain eta ikastaroen gida sortzeaz gain, iazko kanpainarako sortutako bideoak berriro ere gizarteratu egin dira. Gero eta gazte gehiago dira aste batetan begirale ikastaroa kanpora egitera joaten direnak. Oraindik ere, "Express ikastaro"



hauek gero eta arrakasta izaten jarraitzen dute eta **Astialdi Foroko elkarteak astialdia ulertzeko dugun moduarekin ez datorrela aldarrikatzen dute.**

Horretarako, [Youtubeko lau bideoak](#) aprobetxatuz berriro ere gizarteratu dira gizarteratu ditugu, "Behar duzun denbora hartu astialdiko hezitzaile izateko" lelopean. Modu horretan, euskal gazteriari hemengo eskoletan hezteko dei egin nahi izan diegu.

2.1.4 Astialdi Foroko webgunea (www.astialdiforooa.org)

Deskribapena

Astialdi Foroak, webgune berria estreinatu izan du irailaren 4an. Atari berri hau erreferentea bilakatuko nahi da aisialdi hezitzaileko albiste eguneratuak eta ekintzak eskaintzen dituelako baita gure lurraldean esparru honetan mugitzen diren elkarte eta eragile sozialen informazioa ere.



Atari hau eskolekin harremanetan jartzeko bidea izango da, baita udako ekintzak eta aisialdi hezitzaileko formazio guztia ezagutzeko egua ere eta azken albisteak, iritziak eta hausnarketak partekatzeko txokoa. Urtearen garaiaren arabera, webguneak informazio zehatza emango du.

Helburuak

- Astialdi elkarteak ezagutzera ematea.
- Astialdi Foroko eragileen lana jendarteratzea.
- Erreferentziazko tresna bilakatzea.
- Atari dinamiko eta erabilgarria izatea.

Hartzaileak

- Astialdi elkarteak.
- Gazteria.
- 6-18 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak.
- Administrazio eta instituzioak.

Ekintzak

1) Webgunea diseinatu eta sortu.

MAGNASIS-ekin, Gipuzkoako Informatikako ikasleek sortutako enpresarekin batera lan egin da webgunea sortzeko. Martxotik iraila bitartean bilera ezberdinak burutu izan dira Donostiako fakultatean proiektuaren jarraipena egiteko.



2) Webgunearen zabalpena eta prentsa-oharra.

Irailaren 4an argia ikusi zuen webguneak. Boluntariotza zerbitzuen buletinetan, gipuzkoagazteria, astialdiko eragileen sare sozial eta webguneetan,... azaldu egin da. Horrek lehenengo egunean 100 bisitatik gora izatea ahalbidetu zuen.

Honekin batera medioetara prentsa-ohar bat bidali egin zen nahiz eta oihartzunik ez izan.

3) Zabalpenerako materiala.



Webgunearen zabalpena egitearekin batera, erregela eta post-it-ak barnebiltzen zituen material eramangarria sortzea adostu egin zen. Honekin webgunea ezagutzea lortu nahi izan da. Astialdi Foroko eragileak arduratu

egin dira hau zabaltzen eta ezagutzera ematen.

4) Ebaluazio datuak jaso.

Webgunea argitaratu zenetik (irailaren 4tik) gaur egun arte (abenduen 17rarte) 1571 bisita izan ditu www.astialdiforooa.org atariak 1159 erabiltzaile ezberdinetik.

Harrera ona izan du webguneak eta hori kontsultatu ondoren gurekin harremanetan jarri dira helbide elektroniko eta telefono bitartez informazio gehiago eskatuz.

Iraila abendua bitartean hobekuntzak egin izan dira erabilerak eskatuta.



2.2. HEZKUNTZA FORMALA

2.2.1. Unibertsitateko elkartegintza (HEZKUNTZA FOROA)

Deskribapena

Unibertsitateko taldeak eta ekimenak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arlotik harremana berreskuratzea lortu egin zen iazko urte bukaeran. Aurten ere, EGK-k dituen lanerako espazioak eskaini dira taldearekin batera proiektuak garatzeko baina lan hau lehenengo lau-hilabeteen zehar baino ez da gauzatu. Apiriletik aurrera, eragileon parte-hartze eskasagatik ez du jarraitasunik izan.

Helburuak

- Ikasle elkartegintza indartu eta parte hartzea bultzatu.
- Ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena administrazioei eskatzea.

Hartzaileak

- Ikasle ez-elkartuak.
- Ikasle elkarteak.
- Administrazioak.
- Ikasle kontseilu edo biltzarrak

Ekintzak

Aurten urte hasieran enpleguko lan-taldearekin batera, koordinazio ekintzak burutu egin dira elkarlanean. Hauek dira 2014.urtean zehar Hezkuntza Foroko eragileekin (lurgorri, ikasle abertzaleak, ikasle ekintza, Junior enpresa-FVJE- eta Gazte Kanpus) burututako koordinazio bilerak:

- Urtarrilak 30-hezkuntza foroko bilera Bilboko EGK-ko egoitzan.
- Otsailak 13-Enplegu eta hezkuntza lan-taldeen bilera.
- Martxoak 20-Hezkuntza Foroko bilera.
- Apirilak 14- Lehen aukera programaren aurkako prentsaurrekoa.

Aurten enpleguko lan-taldearekin egindako elkarlana da aipagarriena. Enpleguko lan-taldearekin elkartzeaz gain, manifestuari atxikimendua eman zioten hezkuntza lan-taldeko eragileak eta Gasteizen burutu egin zen prentsa-aurrekoan parte hartu.

Apiriletik aurrera, azterketak eta uda tartean izanda, ez da taldea berriro ere elkartu. Hurrengo urtera begira 2014ko urteko gabeziak neurtuko dira hezkuntza arloa berpizteko.



2.2.2. Euskadiko Eskola Kontseilua

Deskribapena

Euskadiko Eskola Kontseilua unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo goren da. Bere Funtzioen artean, hauek dira aipagarrienak: EAE mailan irakaskuntza garatzen duten araei buruzko irizpenak egitea, irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorra burutzea eta txostenak egitea.



Helburuak

- Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteon ahotsa; kezkak eta ekarpenak plazaratzea.

Hartzaileak

- EGK-ko ikasle elkarteak.
- Ikasle gazteak orokorrean.

Ekintzak

- Otsailak 11-Eskola Kontseiluko bilera.
- Azaroak 4-Eskola Kontseiluko bilera.
- Uztailak 7- Eskola Kontseiluko presidentarekin bilera.
- Abenduak 11 – Eskola Kontseiluko bilera.

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte-hartzeaz gain, mezu elektronikoaren bitartez jasotako dokumentuak irakurri eta aztertu egin dira ekarpen zehatzak eginez.

2.3. OROKORRA

2.3.1. “Kanpalekua Legebiltzarrean” ekimena

Deskribapena

2013ko urtean zehar Europako Youth in dirulaguntzari esker garatutako proiektua “Kanpalekua Legebiltzarrean” ekimena. 2014ko ekainean proiektuaren ondorio argitaratu egin da.



Action
izanda
Aurten,
txostena

Helburuak



- Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteon ahotsa; kezkak eta ekarpenak plazaratzea.

Hartzaileak

- EGK-ko elkarteak.
- Administrazioetako gazteria, hzkuntza eta politika sozialetako arloak.
- Astialdi Foroko eragileak.

Ekintzak

Ekainaren 10ean, “Kanpalekua Legebiltzarrean” ekimenaren ondorio txostena EGK-ko webgunean argitaratu egin da. Bertan iazko urria eta azaroan zehar burututako bost topaketetan zehar landutako gaien ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak aurkeztu dira.

2.3.2. Egunerokotasuna

Deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetaz gain, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

Hartzaileak

- Lantalde teknikoa.
- EGK-ko elkarteak.
- EAE-ko elkarte sareak.
- EAE-ko administrazioak.

Ekintzak

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak modu koordinatu batean garatu.



3. PARTE-HARTZEA

Parte-hartze arlo berria sortu zuen EGK-k 2013ko uztailean, “Indartzen” plan estrategikoari, martxoko asanbladan onartutakoari eta 2013ko plagintza orokorrean jasotakoari jarraipena emanez. Gaztaroan parte-hartzea berezko errealitatetzat jotzen du EGK-k, interes eta garrantzi handikoa dena, gazteen bizitzetan eta euren garapen sozio-ekonomiko, kultural eta pertsonalean eragina duena. Gazteriaren Kontseiluaren baitan parte-hartzerako berezko arloa sortu izana ikusmolde honekin bat dator.

Parte-hartze arloak gazteen partaidetzaren sustapena du helburu, eta bere zeregina proaktiboa da. Horretarako a) jardueren bidez parte-hartzea era praktikoan bultzatzeaz gain, b) gazteen eta parte-hartzearen errealitatea jaso, hausnartu eta ezagutu behar ditu. Hala, ondorioak eta gomendioak izango dituzten aldizkako neurketak eta ikerketak burutzea da arlo honen eginkizuna.

Honen ondorioz lan teoriko-praktikoa da parte-hartzearen arlokoa, askotan bulegotik kanpo egiten dena. Gazteen inplikazioaren inguruan kalitatezko ezagutza handitzen den heinean, eraginkorragoa den partaidetza bultzatu eta sustatuko da.

3.1 “Gazteak eta parte-hartzea” ikerketari jarraipena

Deskribapena

Parte hartzeko, eta honekin batera, parte ez hartzeko gazteek dituzten arrazoiak eta motibazioak ezagutzeko nahian, ikerketa kualitatibo bat (“Gazteak eta parte-hartzea”) burutu zuen iaz EGK-k. Parte-hartzearen egoera eta, ondorioz, gazteen nortasuna, egoera sozioekonomiko, kultural eta politikoa, bizimoldeak eta beste ezaugarri sozialak hurbiletik ezagutzea izan zituen helburu “Gazteak eta parte-hartzea”-k.

Parte-hartze arlotik bultzatuta, ikerketa honek estandarizatuta dauden tresna kualitatiboak erabili zituen errealitate sozial hau hobeto ezagutzeko, eta ikerketa osoan 75 gazte eragilek eta 100 gazte baino gehiagok parte-hartu zuten.

“Gazteak eta parte-hartzea”-k lortutako diagnostikoa eta proposatutako ondorioak eta gomendioak aurkeztea, zabaltzea eta sakontzea izan da aurtengo zeregin nagusia. Horretarako, besteak beste, ikerketan jasotakoa azaltzen duen bideo bat egin da eta Gazteen Euskal Behatokiarekin lankidetzara garatu da, ikerketari sakontasuna emango dion proposamen kuantitatibo bat lortzeko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

“Gazteak eta parte-hartzea” ikerketan jaso dagoen analisi osoa modu praktiko eta dinamikoan zabaltzea. Honekin batera, egindako lanari sakontasuna eman, diagnostikoari lotutako ikerketa kuantitatibo berri baten bitartez.

HELBURU ZEHATZAK:



- Iazko ikerketaren txostenean jasotakoa modu erakargarrian gizarteratzea, “Gazteen parte-hartzearen papera” bideoaren bidez.
- Gazteen Euskal Behatokiarekin “Gazteak eta parte-hartzea”-ri sakontasuna eta jarraipena emateko proposamen kuantitatibo bat lantzea.
- Honen baitan, gazteen parte-hartzerako dauden baldintzak zein inplikatzeko forma ezberdinak identifikatzea eta kontuan hartzea.
- “Gazteak eta parte-hartzea” ikerketaren txostenean jasotakoari eragin praktikoa ematea.

Hartzaileak

- EGK erakunde gisa.
- EGK-ko kide diren elkarte eta eragileak.
- Gainontzeko gazte elkarte eta eragileak.
- EAEko gazteak oro har.
- EAEko erakunde publikoak.

Ekintzak

“GAZTEON PARTE-HARTZEAREN PAPERA” BIDEOA

- Otsailean eta martxoan bideoaren proposamen orokorra landu zen Parte-hartze arloa eta Komunikazio arloaren artean. Gidoia martxoaren 3an bukatu zen.
- Martxoaren 25etik 28ra grabatu zen bideoa, Drie Filmak kultur elkartearekin batera.
- Muntaia eta gero, maiatzaren 27an argitaratu zen bideoa YouTube, sare sozialetan eta webgunean. EGK-k egin dituen hainbat aurkezpenetan ere erabili da. [Ikusi bideoa.](#)



GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIAREKIN LANKIDETZA

- Martxoaren 17an Behatokiarekin lehenengo bilera egin zen. Bertan EGK-k bere proposamenak azaldu zituen, eta ikerketa kuantitatibo bat garatuko zela adostu zen.
- Apiriletik abendura ikerketa berriaren ezaugarriak elkarrekin landu dira. EGK-k hainbat dokumentu eta proposamen bidali dizkio Behatokiari.
- Euskadi osoan eragin zuzena izango du ikerketa honek. EAEko laginaren kopurua, datuak eta txostenak publikoak izango dira 2015eko lehenengo seihilekoan.

DIAGNOSTIKOA ETA ONDORIEN EZARPENA

- Urte osoan zehar “Gazteak eta parte-hartzea” ikerketaren txostenean agertzen ziren ondorioak eta diagnostikoa praktikara eraman dira, gazte eta eragileekin harremanetan,



EGK-ko diskurtso publikoan, "Gazteen parte-hartzerako gida"-n eta EGK-ko jardura orokorrean.

Jarraipena eta ebaluaketa

Bideoari dagokionez, oihartzun zabala izan du, publikatu diren bi kanalen artean ia 400 bisita lortu baititu. Honez gain, hainbat aurkezpen publikoetan erabili izan da, harrera ona jasoz.

Gazteen Euskal Behatokiarekin aurrera eraman den lanak ez du aurrekaririk EGK- n, eta honen ondorioz, lankidetzak honek duen garrantzia azpimarratzekoa da. Elkarlan honi esker bidean dagoen proiektu kuantitatiboa kalitate handikoa izango dela baieztatu da.

Honekin batera, diagnostikoaren eta ondorioen eragina EGK-ko egunerokotasunean dagoeneko nabaria da, bai ekintza praktikoetan, diskurtsoan edota argitaratutako dokumentuetan.

3.2 Gazteen parte-hartzerako gida

EGK-k ia 30 urte daramatza esparru guztietako gazte eragileekin lan egiten, baina hainbeste denbora pasa eta gero, behar-beharrezkoa zen parte-hartzerari buruzko zalantzak argituko zituen gida bat argitaratzea. Hau dela eta, parte-hartze arlo berriaren zeregin nagusia izan da partaidetzaren inguruko gida bat idaztea eta zabaltzea. EGK-k gazte taldeekin duen harremanari esker, parte-hartzeko edo talde bat martxan jartzeko gazteek dituzten kezkak zehaztu dira eta, lan honen ondorioz, "Gazteen parte-hartzerako gida" argitaratu da.

Deskribapena

"Gazteen parte-hartzerako gida" gazteen partaidetza bultzatzeko tresna bat da, oso sakona, baina dinamikoa eta irakurtzeko erraza. Informazioa lortzeko prozesuan eta argitu beharreko zalantzak ezagutzeko nahian, talde mota ezberdinak hartu dira kontuan: formalak (elkarteetatik alderdi politikoetara) eta ez formalak (asanbladak, erregistratu gabeko mugimenduak edota plataformak). Honekin batera, zalantza hauei erantzun ahal izateko erakunde publikoekin eta erregistro ofizialekin bildu da Kontseilua.

Hamabi orrialdetan, bai gazteleraz bai euskaraz, talde bakoitza eratzeko pausoak ematen dira, alde onak eta ez hain onak, konposizioa, derrigorrezko organoak, beharrezko dokumentazioa eta erregistro garrantzitsuenak. Taldea eratuta dagoenean, kudeaketa eta garapenaren inguruko informazioa ere ematen da: bestelako erregistro eta erroldak, kudeaketa ekonomiko-fiskala eta antolakuntza eta komunikazio ona erdiesteko aholkuak, besteak beste. Azkenik, esparru honetan lan egiten duten erakunde guztien esteka interesgarriak biltzen dira.

Gida euskarri fisikoan zein digitalean argitaratu da. Azken kasu honetan, gida ahalik eta interaktiboena egiteko saiakera egin da eta, horregatik, iturri originaletara eramaten duten esteka ugari daude: administrazioetara eta beste eragileetara. Gazteriaren Kontseiluak informazio hau eguneratua izateko konpromisoa hartu du eta ez dabilen estekarik, aldaketa



legalik edo gainbegiratua izan behar den beste moldaketaren bat aurkitzen bada, formulario bat jarri da webgunean erabiltzaileen eskura.

Ohiko elkartegintza ez ezik, talde ez formalak eta parte-hartze modu berriak ere jorratzen dituelako, ezaugarri hauekin Euskadi mailan eta gazteei zuzenduta egin den lehen gida da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gida honekin, gazteen artean parte-hartzea bultzatzea du helburu EGK-k. Horretarako, funtsezkoa da gida honen zeregin nagusia, hots, gazteek parte-hartzearen inguruan egiten dituzten ohiko galderei erantzutea: “zergatik parte hartu eta non?, zer gertatzen da nire taldea erregistratzen ez badut? nola sor dezaket elkarte, kooperatiba, kirol kluba, konpartsa edo asanblada bat? nola kudeatu talde formal edo talde ez formal bat? zer agiri behar ditut? zein da kostua? nora joan behar dut?”, besteak beste.

HELBURU ZEHATZAK:

- Parte-hartzearen garrantzia eta eragina azpimarratzea.
- Parte-hartzeko era ezberdinei buruzko informazioa ematea.
- Talde formal eta ez formalen arteko ezberdintasunak eta aukerak jakitera ematea.
- Erregistro eta errolda ofizialen inguruko argibideak zabaltzea.
- Talde kudeaketan jarraitu beharreko pausoak definitzea.
- Jatorrizko iturrietara lotura zuzenak ematea.
- EGK-ko ezinbesteko tresna izatea, bere izaera praktikoa azpimarratuz.

Hartzaileak

- EGK-ko kide diren elkarte eta eragileak.
- Beste gazte elkarte eta eragileak.
- EAEko gazteak oro har.
- EAEko erakunde publikoak.

Ekintzak

PLANTEAMENDU OROKORRA ETA INFORMAZIOAREN BILKETA

- Martxoan gidaren nondik norakoak zehaztu ziren. Horretarako 2013an burututako “Gazteak eta parte-hartzea” ikerketaren diagnostikoa eta ondorioak jarraitu ziren. Modu honetan elkartegintza tradizionala zein parte hartzeko modu berriak kontuan hartuko zirela erabaki zen.
- Apirilaren 1etik maiatzaren 9ra landa-lana egin zen. Prozesuan hainbat gazte parte-hartzaileekin kontrastea egin zen, eta parte-hartzerako agentziekin (Gizalde, Bolunta, elkarteak.info) errolda edota erregistro ofizialekin (Eusko Jaurlaritza, Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko udalak) eta inplikaturako administrazioekin (Europa, Estatu, EAE eta lurralde historiko mailan) kontaktatu zen.



IDAZKETA PROZESUA ETA MAKETAZIOA

- Maiatzean eta ekainean gidaren edukia idatzi zen. Horretarako jasotako informazioa eta jatorrizko iturrietan dauden dokumentuak erabili ziren. Gidak bi bertsio ezberdin ditu: fisikoa eta digitala. Azken honetan, lotura zuzenak ere gehitu ziren interaktiboa izan zedin.

GIDAREN ZABALPENA

- Uztailaren 3an gidaren aurkezpena egin zen. Egun horretan bertan gida webgunean eskegi zen. [Ikusi “Gazteen parte-hartzerako gida” webgunean](#)
- Uztailetik aurrera gida zabaldu zen, modu fisikoan zein digitalean: sare sozialetan, komunikabideetan, gazte bulegoetan, EGK-ko egoitza eta ekitaldietan, etab.



Jarraipena eta ebaluaketa

“Gazteen parte-hartzerako gida”-k jaso duen harrera eta oihartzuna oso ona izan da. Iritzi positiboak jaso dira inplikaturako arlo guztien partetik (gazteak eta gazte eragileak, parte-hartzerako agentziak eta erakunde publikoak) eta gidak izan duen zabalpen handia honen erakuslea da: 600 ale fisiko eta webgunera bisita ugari. Bestalde, komunikatiboki zer eragina izan duen jakiteko, irakurri Komunikazio atalean jasota dagoena.

Lan honi jarraipena egiteko, formulario bat abian jarri da webgunean balizko aldaketak kontuan hartu ahal izateko. Modu honetan, gidan ematen den informazioa eguneratuta jarraitzea ziurtatu egiten da. [Ikusi formularioa webgunean.](#)

3.3 GAZTEEKIN ETA GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENeko HARREMANA

3.3.1 Material eta gelen lagapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren material eta gelen lagapen zerbitzua eskaintzen zaie gazte talde eta parte-hartzerako ekimen ezberdinei. Zerbitzua hobetzeko aurreko prozedura estandarizatua jarri da abian, Parte-hartze arloak koordinatuta.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Mailegu zerbitzu honen bitartez gazte eragile ezberdinei parte-hartzerako tresna praktikoak eman nahi zaizkie. Honekin batera, material eta gelen lagapenari esker EGK-ren eta gazte kolektiboen arteko harremana hobetzea eta sakontzea da helburua.

**HELBURU ZEHATZAK:**

- Material eta gelen lagapenerako prozedura, dokumentuak eta beharrezkoa den beste edozer definitzea eta estandarizatzea.
- Prozedura aplikatzea.
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekekiko konfidantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

Hartzaileak

- EGK-ko kide diren elkarte eta eragileak.
- EAEko bestelako gazte elkarte eta eragileak.
- EAEn parte-hartze proiektu bat garatu nahi duten gazteak.

Ekintzak**2014KO LAGAPENAK ARABAN**

- ELKARREKIN – APOYO MUTUO: Otsailaren 8an. Vitoria-Gasteiz-ko gela, bilera baterako.
- IKASLE ABERTZALEAK: Apirilaren 7tik maiatzaren 13ra. Karpa eta sorgailuak, ikasleen ospakizuna egiteko.
- GAUEKOAK: Maiatzaren 15etik 20ra. Sorgailu bat, Long Board lehiaketarako.
- TXAGOKO JAI BATZORDEA: Ekainaren 9tik 13ra. Sorgailu bat, auzoko jaietarako.
- TXARANGA AUSKALO. Ekainaren 10etik 13ra. Proiektore bat, euren urteurrena ospatzeko.
- GAUEKOAK: Ekainaren 10etik 17ra. Karpa eta sorgailuak, jaialdi baterako.
- EGUIBIDE FÚTBOL FEMENINO: Ekainaren 11etik 13ra. Soinu ekipoa, kaleko ekitaldi bat burutzeko.
- GAUEKOAK: Uztailaren 18tik 22ra eta irailaren 25tik 30era. Sorgailu bat, kaleko ekintza bat egiteko.

2014KO LAGAPENAK BIZKAIA

- EUSKALERRIKO ESKAUTAK: Otsailaren 12tik 16ra. Bideokamara, bideo-grabaketa baterako.
- PIZTIAK: Otsailaren 27tik Martxoaren 3ra. Bilboko egoitza eta materialak, inauteriak prestatzeko asanblada egiteko.
- KIRIBIL: Martxoaren 21etik 24ra. Karpa eta sorgailuak, kaleko ekintza bat egiteko.
- EUSKALERRIKO ESKAUTAK: Martxoaren 27tik apirilaren 6ra. Sorgailuak, Gorka Deuna ospatzeko.
- JÓVENES SAHARAUIS: Apirilaren 16an. Bilboko egoitza eta materialak, bilera bat egiteko.
- BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA: Maiatzaren 9tik 11ra eta 23tik 25era. Soinu ekipoa, kaleko ekintza bat egiteko.
- EZKER ANITZA GAZTEAK: Ekainaren 13an. Bilboko egoitza eta materialak, bilera bat egiteko.



- KALE DOR KAYIKO: Ekainaren 2tik 7ra. Sorgailu bat, urteurrena ospatzeko.
- IRATZARRI: Irailaren 5etik 7ra. Bilboko egoitza eta materialak, jardunaldiak burutzeko.
- PIZTIAK: Ekainaren 28an, irailaren 20an eta azaroaren 9an. Bilboko egoitza eta materialak, bilera bat egiteko.
- AFS- EUSKAL INTERKULTURA: Irailaren 27an. Bilboko egoitza eta materialak, bilera bat egiteko.
- PARTE-HARTUZ: Urriaren 28an. Bilboko gela txikia, bilera bat egiteko.
- EDEX FUNDAZIOA: Azaroaren 27an. Bilboko egoitza eta materialak, prestakuntza emateko.
- AFS- EUSKAL INTERKULTURA: Abenduaren 19an. Bilboko egoitza eta materialak, topaketak egiteko.

2014KO LAGAPENAK GIPUZKOAN

- BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA: Urtarrilean, otsailean eta martxoan. Donostiako gela, ikastaro bat egiteko.
- AFS-EUSKAL INTERKULTURA: Apirilaren 4an. Donostiako gela, bilera bat egiteko.
- EZKER ANITZA GAZTEAK: Apirilaren 12an eta 13an. Donostiako gela eta proiektorea, bilera bat egiteko.
- GAZTEGEHITU: Maiatzaren 3an, 10ean, 17an eta 24an. Donostiako gela eta proiektorea, bideoforum LGTB bat egiteko.
- JUNIOR ENPRESA: Ekainaren 6an. Donostiako gela eta proiektorea, Batzar Orokorra egiteko.
- GIZA ESKUBIDEEN FOROA: Ekainaren 16an. Donostiako gela, bilera bat egiteko.
- ILLUNBE AE: Uztailaren 28tik 31ra. Proiektorea, ekintza bat egiteko.

Jarraipena eta ebaluaketa

2014an EGK-k gela eta materialen lagapenerako prozedura estandarizatu du, barne-arautegi baten bidez. Maileguan ematen diren materialak eta gelak jarraipen orri batean apuntatzen dira eta parte-hartze teknikariak guzti honen koordinazioa eramaten du. Prozedura berri honi esker, zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortu da.

Urte osoan zehar 39 lagapen gauzatu dira 28 elkarte eta ekimen ezbedinei. Prozedurari esker zerbitzu honen kudeaketa hobea izan da, bai EGK-rentzat, bai eskatzaileentzat. Zentzu honetan, lagapen guzti-guztietan fidantzak jaso eta itzuli dira, Idazkaritzarekin elkarlanean.

Hemendik aurrera helburuak hurrengoak izango dira: prozedura mantentzea eta eguneratzea, mailegu zerbitzua ezagutzera ematen jarraitzea eta lagapen gehiago eragile ezberdineei lortzea.



3.3.2 Gazteei eta elkarteei aholkularitza eta zuzeneko harremana

Deskribapena

2014 urtean gazte ezberdinei aholkularitza eskaini zitzaie. Ekimen eraginkorra izateaz gain, gazteei aholkularitza emateko gaitasunak zentzu praktikoa eta ulergarriagoa ematen dio EGK bezalako erakunde bati. Lan hau gauzatzeko teknikari guztiak inplikatu dira.

Gainera, Parte-hartze arlotik gazte eragileekin zuzeneko harremanari ekin zion.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek eta eragileek parte-hartzearen inguruan dituzten beharrak, kezkak, proposamenak eta dudak entzutea eta modu egokian bideratzea. Gazte eta eragile hauekin harremanak sendotzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Elkartegintzari eta parte-hartzeari lotutako aholkularitza ematea: nola parte hartu, nola sortu elkarte bat, nola erroldatu, ereduak eta antolatzeke era ezberdinak, sareko lana, beste entitateekiko harremana.
- EGK-k zuzendutako aholkularitza ematea: funtzionamendua, barne prozedurak, ekarpenak, kritikak eta balorazio onak emateko aukera.
- Administrazioari buruzko aholkularitza ematea: erakunde publikoaren harremanak elkartegintzarekin, nola eragin, zein bide jarraitu, elkarteen eta administrazioen arteko elkarlana hobetzeko proposamenak...
- Sare ezberdinetan parte-hartzea euren ideiak jasotzeko eta EGK-renak transmititzeko (Sareginez, etab.)
- Batzorde Iraunkorrari informazioa, aholkularitza, hausnarketak eta diagnostikoak eskaintzea, parte-hartzearen inguruko posizionamenduak landu ditzen.
- Urtea amaitu baino lehen deialdi ireki bat burutzea, parte-hartzearen inguruko eskakizunak eta kezkak jasotzeko. Honekin batera, aurreko hilabeteotan lortutako pisuarekin hurrengo plangintzari begira parte-hartzea nola lantzen jarraitu EGK-n definitzen hastea.

Hartzaileak

- EGK-ko kide diren elkarte eta eragileak.
- Gainontzeko gazte elkarte eta eragileak.
- EAEko gazteak oro har.

Ekintzak

AHOLKULARITZA



- Urte osoan zehar, hainbat gaztek eta eragilek jaso dute EGK-ko aholkularitza. :

ARABA

- KalekoLan elkarte
- Asociación GAZE
- Acción contra el hambre
- Jóvenes Sahrauis
- EH Bildu
- Euskal Eskaut Gia Elkarte
- Atsedeen Taldeak
- HalaBedi Irratia
- Instituto Foral de la Juventud
- Asociación Hablantes del Poul
- Norbanako gazteak
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak, etab.).

BIZKAIA

- AEGEE
- Kale Dor Kayiko Gazteak
- Sarepolis
- Orozkoko gazte asanblada
- Norbanako gazteak ¹
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak, etab.).

GIPUZKOA

- Gaztegehitu
- Instituto Europeo de Estudios Internacionales (IEEI)
- Junior Empresa
- Topatu elkarte
- Eraiki elkarte
- Kale Dor Kayiko Gazteak
- Ernai
- Sareginez plataformako eragileak
 - o Gizalde
 - o Gurutze Gorria
 - o Kaebnai
 - o DYA Gipuzkoa
 - o Caritas Gipuzkoa
 - o SurfRider
- Norbanako gazteak
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak,

^{1 2} Mota hauetako aholkularitza gehienak Bizkaian egin dira aurren, lurralde honetan 20 bat baino gehiago burutuz.



etab.).

ZUZENeko HARREMANAK

Sare ezberdinetan parte-hartzea

- Aurten Parte-hartze arlotik aktiboki parte hartu da Sareginez Gipuzkoako boluntariotzaren plataforman. Besteak beste hilean behin egiten den bileran izan da teknikaria, irailaren 27ko Boluntariotzaren Azokan EGK-ko Gehitu eta Gazteen Gurutze Gorria elkarteak parte-hartzera animatzea lortu zen, gazte stand-a berreskuratuz, eta abenduaren 5eko Boluntariotzaren Nazioarteko Egunarako ekintzak direla eta, EGK-ko Komunikazio arloaren laguntzaz Sareginezeko irudi eta proposamen komunikatiboa landu zen.
- Bizkaian, gida idazketa prozesuan, Boluntarekin harremana estutu zen, partaidetza eta erregistroen inguruko informazioa elkartrukatzuz.



Batzorde iraunkorrari posizionamenduak proposatzea

Irakurri 3.3.3. puntua “Adierazpen publikoak”.

Deialdi irekia

- EGK-ko Parte-hartze arloko Deialdi Irekia urriaren 29an burutu zen, Bilbon.
- Gipuzkoako eta Bizkaiko 9 parte-hartzaile hurbildu ziren egindako lana ezagutzera eta baloratzera. Horrez gain 2015ean lantzeko proposamenak jaso ziren.
- Ideien artean, Herritarren Segurtasun Legearen inguruko proposamena lantzea (irakurri 3.3.3 puntua) eta hurrengo urtean GazteOlinpiadak antolatzea atera ziren.





Jarraipena eta ebaluaketa

Parte-hartze teknikariak jarraipena eman dio zeregin honi, beste teknikarien laguntzaz. Urte osoan zehar talde eta gazte askok aholkuak eskatu dituztelako, aurten eskaini den aholkularitza modu onean balora daiteke. Horretarako jarduera hau arautzen duen prozedura estandarizatu bat garatu da, zerbitzuari kalitatea eta egonkortasuna emanez.

Bestalde, zuzeneko harremanei dagokienez, nabarmen berreskuratu eta aurreratu da 2014an egindako lanari esker. Lortutako konfidantza mantentzea eta handitzea izango da helburua.

3.3.3 Adierazpen publikoak

Deskribapena

Gazteen partaidetzan eragina duten gertaera publikoen aurrean, Parte-hartze arloak EGK-ko jarrera jasotzen duten adierazpen publikoak lantzen ditu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Parte-hartzearen inguruan EGK-k dituen iritziak, kritikak, ideiak eta proposamenak hausnartzea eta publikoki plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gertarea publikoen edota lege proposamenen jarraipena egitea.
- EGK-ren baitan berezko jarrera bat lantzea.
- EGK-ko jarrera ezagutzera ematea.

Hartzaileak

- EGK erakunde gisa
- EGK-ko kide diren elkarte eta eragileak
- Gainontzeko gazte elkarte eta eragileak
- EAEko gazteak oro har

Ekintzak

HERRITARREN SEGURTASUN LEGEAREN INGURUKO ADIERAZPEN PUBLIKOA

- Urte hasieran Espainiako gobernuak bultzatutako "Herritarren Segurtasun Legea"-ren proiektuarekiko interesa piztu zen EGK-ren baitan. Hau dela eta, gaiari jarraipena eman zitzaion Parte-hartze arlotik urtean zehar.
- Aurreko puntuan jaso den bezala, urriaren 26an Parte-hartze arloko Deialdi Irekia Bilbon burutu zen. Bertan legeari buruzko adierazpenaren lehenengo proposamena aurkeztu zen.
- Azaroan proposamen landuago bat garatu zen. Horretarako Espainiako gobernuak aurkezturiko lege-proposamena, talde parlamentarioek legeari egindako zuzenketak eta



eragile sozialen proposamenak kontuan hartu ziren.

- Abenduaren 9an EGK-ko adierazpen publikoa zabaldu zen gazte eragileen artean, webgunean, sare sozialetan eta komunikabideetan.

Jarraipena eta ebaluaketa

Adierazpen hau burutzeko Deialdi Irekia egin zen, parte-hartze teknikariak dinamizatuta. Lortutako adostasuna eta egindako hausnarketaren edukia ondo baloratzeko modukoak izan dira.

3.3.4 Kide eta eremu berriak EGK-ra hurbildu

Deskribapena

EGK-ren arlo ezberdinen lana dela eta, gero eta gaztek eta talde gehiagok dute harremana EGK-rekin.

Eraiki den sare hau indartzeko eta handitzeko nahian, Kontseiluarekin elkarlanean aritzeko prest dauden eragile berriak lortzen eta mantentzen ahalegintzen da EGK. Lan hau Parte-hartze teknikariak eta Presidenteak garatzen dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK gizarteratzea eta kide berriak lortzea.

Parte-hartzearen inguruan EGK-k dituen iritziak, kritikak, ideiak eta proposamenak hausnartzea eta publikoki plazaratzea.

- Gazte eragile berriak EGK-rekin harremanetan jartzea.
- Azken urteetan lortutako kontaktuekin harremana ahalbidetzea eta egonkortzea.
- EGK-ren baitan ez dauden eremuak jorratzen dituzten beste eragileekin harremanetarako berezko saiakera egitea.
- Gazte eragileentzako Gidaren informazioa eskaintzea.

Ekintzak

Aurten bi elkarte ezberdinek (Eraiki eta aisialdi talde bat) EGK-ra sartzeko prozedurari buruz galdetu dute, eta informazioa helarazi zaie.

Honekin batera, EGK-ra sartzeko bideak ezagutzera emateko “Gazteen parte-hartze gida”-n eta webgunean jaso eta zabaldu da. ([Ikusi informazioa webgunean](#)).

Gainera 2014an burutu diren ekintza guztietan gazte eta eragile berriekin egoteko aukera izan du EGK-k, bere izaera eta jardura jakitera emanez.

Bukatzeko, martxoko Asanbladara gonbidatzeko urtearen amaieran bidalitako eskutitzan EGK-ko Presidenteak eragile berriei berezko deia egin die, EGK-ko kide bihurtu daitezen.

Hartzaileak

- EGK-tik kanpoko gazte eragileak.



Jarraipena eta ebaluaketa

Aurtengo lan karga handia izan arren helburu honi lotutako jarduera modu egokian burutu egin da. Etorkizunari begira, eremu berriak EGK-ra hurbiltzeko Kontseilua gizarteratzea izango da gakoa.

3.4 Erakunde publikoekin harremanak

Deskribapena

EGK-ri gazteen eta administrazioen artean zubi-lana egitea dagokio. Horregatik, Parte-hartze arloaren zereginetako bat erakunde publikoekin harremanetan egotea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko Parte-hartze arloa eta EAEko administrazio ezberdinetako arduradunek elkar ezagutzea. Lan egiteko aproposa den giroa bultzatu eta mantentzea, eraginkortasuna handitzeko helburuarekin..

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko Parte-hartze arloak eta EAEn, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dauden erakunde publikoetako gizarte partaidetzarako arduradunak elkarlanean jartzea.
 - Lortutako harreman instituzionalak mantentzea eta harreman berriak garatzea, parte-hartzearen berezko ikuspegitik.
- Parte-Hartze arlotik parte-hartzearen inguruan identifikatzen diren gazteen interesak eta beharrak administrazioei eramatea, eta administrazioek dituzten zalantzak edo eskaerak jasotzea.
- Lurralde bakoitzeko Aldundiak egiten dituen eskaerei erantzutea.

Hartzaileak

- EGK erakunde gisa
- Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak, udalak eta gazte ikuspegia duen beste edozein erakunde publiko.

Ekintzak

EAE

- Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurirako ideiak jasotzeko prozesuan inplikatu da EGK. Martxoaren 17an Innobasque-ko arduradunekin bildu ziren Presidente eta Parte-hartze teknikaria. Honen ondorioz, Gasteizko parte-hartze teknikariak hiriburu horretan antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen, martxoaren 21an. Lan honi jarraipena emateko Parte-hartze teknikaria izan zen azaroaren 17ko topaketan, Getxon. Azkenik, abenduaren 19an Bilbon egin zen aurkezpen publikora ere bertaratu zen teknikaria, EGK-ren izenari.



- Gidarako informazioa jasotzeko Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko elkartearen eroldaren arduradunekin elkartu zen Parte-hartze teknikaria maiatzaren 22an, Bilbon. Egun berean Kultura Saileko Kirol Erakundearen Erregistroaren arduradunekin bildu zen.

ARABAN

- Gidarako informazioa bilatzeko eta interlokuzioa irekitzeko, Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuarekin eta Herritar Erakundearen Udal Erregistroarekin bildu zen Parte-hartze teknikaria apirilaren 4an.
- Arabako Ogasunarekin maiatzaren 9an elkartu zen teknikaria, Vitoria-Gasteizen.
- Vitoria-Gasteizko Udalak eta EGK-k bultzatutako GazteAstearen ere parte hartu zuen parte-hartze teknikariak, azaroan.

BIZKAIA

- Gidarako informazioa bilatzeko prozesuaren baitan Bilboko Udaleko Hiritarren Partaidetzaren Entitateen Udal Erroldako arduradunarekin elkartu zen teknikaria apirilaren 16an.
- Kultura saileko Gazteria arloko arduradunarekin eta Administrazio Zuzendariarekin bilera burutu zen maiatzaren 20an, Bilboko BFAko egoitzan.
- Urte osoan EGK-ren eta BFaren arteko elkarlana garatu da, adibidez K proiektuan (otsailetik aurrera. Gaztekaldia urriaren 25ean izan zen) edota BePart ekimenean (maiatzteik aurrera. Abenduaren 1ean mahai-ingurua egin zen).

GIPUZKOAN

- Gipuzkoako Foru Aldundiko arlo ezberdinekin elkartu da urtean zehar. Besteak beste, Gipuzkoako Ogasunarekin bilera apirilaren 14an burutu zen (gidarako informazioa bilatzeko prozesuaren baitan), Herritarren Partaidetzaren Zuzendari den Arantza Ruiz de Larrinaganarekin urriaren 13an eta GFAko Gazteria zuzendaritzako ordezkariarekin azaroaren 11an.
- Donostiako Udaleko Herritarren Partaidetzaren zerbitzuarekin apirilaren 15ean eta irailaren 25ean kontaktua egin zen, gidarako informazioa bilatzeko eta Donostiako parte-hartzearen egoera orokorraz mintzatzeko.
- Otsailaren 3tik 7ra, EGK-ko Parte-hartze arloak eta Hezkuntza arloak Gaztematikarako ideiak jasotzen zituen dokumentu bat idatzi eta aurkeztu zuten. Bertan Gipuzkoako Gaztematikatik landu zitezkeen proposamen metodologikoak eta balizko ekintzak jaso ziren.

Jarraipena eta ebaluaketa

2014an EGK-ren eta EAE osoan eragina duten erakunde publikoen arteko harremana sakondu da, emaitza onak lortuz. Hemendik aurrera, lan honi jarraipena emateko eta interlokuzioa mantentzeko eta hobetzeko konpromisoekin jarraituko da.



4. KOMUNIKAZIOA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko komunikazio arloaren zereginak honakoak dira:

- **EGK-ren jarduera** ezagutzera eman.
- **EGK-ko elkarteen jarduera** ezagutzera eman.
- **Bestelako gazte elkarte** eta eragileen lana zabaldu.
- EGK-ko **barne komunikazioa** bermatu (lan talde teknikoa, Batzorde Iraunkorra, EGK-ko elkarteak).

4.1. RECacciona, gazteok enplegu duina! Bideo lehiaketa



Deskribapena

RECacciona bideo lehiaketa bigarren aldiz antolatu da aurren eta helburua hauxe izan da: gazteok lortu nahi dugun enplegu duinaren inguruan hausnartzea.

Lehiaketaren gaia honako hau izan da: **“RECacciona, gazteok enplegu duina”** eta gazteei galdera hauen inguruan pentsatzea gonbidatu genituen:

- Zergatik daude hain gaizki ordainduta gazteoi eskaintzen dizkiguten enpleguak?
- Zergatik ezartzen dizkigute froga-epe hain luzeak? Zergatik dira hain kontratu laburrak ala atzerrian? Zergatik hainbeste eskaintzek dute praktika edo beka aurrezkoa?
- Gazte bezala, enplegu duina izateko aukerarik ez duzula sentitzen al duzu?
- Zuri ere iruditzen zaizu zure inguruko jende gaztea lan-prekarietate egoera batean bizi dela?
- Egoera hau aldatzeko zerbait egin dezakegula iruditzen zaizu?
- Ordezkaritza politikoei gazteria eta enpleguari buruz zerbait esan nahi diezu?
- Honi guztiari aurre egiteko proposamenak okurritzen al zaizkizu?

Parte hartzaileei dagokionez, 18 eta 30 urte bitarteko pertsona guztiek hartu ahal izan dute parte, bi pertsona edo gehiagok osatutako taldeetan antolatuta. Bideoek gehienez lau



minutuko iraupena izan behar zuten, eta euskarak presentzia izan behar zuen lan guztietan.

Sariak hauek izan dira:

- Lehenengo saria: 1.000 euro, enplegu mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko.*
- Ikusleen saria (bozken emaitza): 400 euro, enplegu mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko.*
- Ikusleentzat saria: 50 euro bidezko merkataritza edo nekazaritza ekologikoko saltoki batean gastatzeko (aukeran).

***Zertan erabili zitezkeen lehenengo eta bigarren sariak?**

- Enplegu mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko (ikastaro bat egiteko, zure enpresa muntatzen hasteko, lan-proiektu baterako materiala erosteko...).
- Enplegu duinaren sustapenarekin zerikusia duen proiekturen bat gauzatzeko (bideo bat grabatu, argazki-erakusketa bat egin, koreografia bat muntatu, argitalpen bat editatu, jardunaldi batzuk antolatu...).
- Enplegu duina sustatzeko gauzatu den ekimen bat ala elkartegintza esperientzia bat ezagutzeko bidaiatzea.
- Elkarte edo gizarte mugimendu batean ekintzak antolatzeko.
- Brigada batean parte hartzeko, Hegoaldeko lankidetzaren proiektu batean parte-hartzeko, bidaia solidario bat ala elkartrukeak egiteko...
- Gaiarekin lotutako ikastaro bat egiteko, dena dela ikastaroa egiten den tokia.
- Elkarte bati, gizarte proiektu bati edo Gobernu Kanpoko Erakunderen bati dirua emateko.
- Kolektibo batentzat materiala erosteko.
- Okurritu ez zaizkigun ekimenetarako (zure ideia izen emate orrian aipatu).

www.egk.org atarian irakur daitezkeen oinarrietan jasotzen dira bestelako zehaztapen guztiak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskal gazteriak enplegu-arloan bizi dituen prekarietate errealitateak ikustarazi eta egoerari aurre egiteko proposamenak gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Enplegu arloan gazte eta gazte-elkarte ezberdinek dituzten ikuspuntuak eta proposamen berri jaso.
- Gazteon artean enplegu politikei buruzko hausnarketa eragin.
- EGK-k Gazteria eta enplegu arloan egiten duen lana ezagutarazi.

Ekintzak

- Izen emateak eta bideoen bidalketa: maiatzaren 30era arte (epea bi aste gehiago luzatu genuen).
- Bozketa eta epaimahaia: ekainaren 20ra arte.
- [Sari-banaketa](#): ekainaren 26an, EGK-ko Donostiako egoitzan.



•

Hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Sare sozialetako jarraitzaileak eta Piztu buletineko harpidedunak.

Jarraipena eta ebaluazioa

- **40 pertsona inguruk** parte hartu dute bideo-lehiaketan, bederatzi taldetan antolatuta.
- **113 pertsonak** parte hartu dute bideoen bozketan eta ikusleentzat-sariaren zozketan.
- **35 pertsona inguruk** parte hartu dute sari banaketa ekitaldian, gehienak gazteak. Banaketa arrakastatsua izan zen Donostian egin genuena, beheko argazkian ikus daitekeen bezala.
- Guztira, ia **1.900 ikustaldi** baino gehiago izan dituzte bideoek Youtuben.
- Lehiaketa egin arte **elkar ezagutzen ez zuten taldeek** elkar ezagutu dute.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **gazteen enplegu duinaren buruzko ikuspuntu** eta bizipen errealitate ezberdinen berri jaso du.
- **EGK-k ezagutzen ez zituen talde** eta gazteen lana ezagutu eta kontaktua ezarri du.
- Lehiaketak gazteen **gazteen lan enplegu baldintzen inguruko bideoak eskuragarri** ipini ditu sarean, errealitate hori ikustarazteko beste tresna bat gizartearen esku jarritz.





4.2- Piztu! Hamabosteroko buletin elektronikoa

Deskribapena



Gazteek gazteentzat egindako buletin digitala da.

Bi-hiru astean behin jasotzen dute hartzaileek, honako edukiekin:

- Euskadiko Gazteriaren kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jardueren berri.
- Bestelako gazte eragileen jardueren berri.
- Komunikabide ezberdinek gazteei buruz eta gazte elkartegintzari buruz argitaratzen dituzten albisteak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60-%70euskaraz).

Ekintzak

Bi-hiru astean behin osatu eta bidaltzen da Piztu buletina. 2014 hau pixkat berezia izan da Komunikazio arloan bi teknikarien arteko lekukoa izan delako. Hau dela eta, maiatzetik iraila hasierara arte ez zen Piztu! buletinarik bidali, teknikari berriak lan hau egiteko pausoak ikasi behar zituelako. Hilabete hauek erabili genituen udara aldean EGK eta gure inguruan dauden elkarten ekintza kopurua jaisten delako. Aste hauek bidalketa prozesuaren hainbat ezaugarri tekniko moldatzeko ere aprobetxatu genuen eta irailean betiko maiztasunarekin hasi ginen berriro.

Hartzaileak

**1.535 harpidedun** (2013an baino 108 harpidedun gehiago):

- o EGK-ko elkarteak.
- o Beste gizarte mugimendu batzuk.
- o Gazte-bulegoak.
- o Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- o Harpidetza egin duten norbanakoak.

Sare sozialetako 6.676 jarraitzaileak:

(3.654 Facebook, 2.008 Twitter, 1.014 Tuenti, 2014ko abenduaren 1ean).

- o EGK-ko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...
- o

Jarraipena eta ebaluazioa

16 buletin bidali ditu Komunikazio arloak urtarrila eta abenduaren 4ra arte; kopuru honi, Gabonak baino lehen bidaliko dugun azken buletina ere gehitu behar diogu.

2014-01-10

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=53>

2014-01-27

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=54>

2014-02-10

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=55>

2014-02-27

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=56>

2014-03-10

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=57>

2014-03-28

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=59>

2014-04-09

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=60>

2014-05-08

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=62>

2014-09-11

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=65>

2014-09-25

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=66>



2014-10-08

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=67>

2014-10-23

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=68>

2014-11-05

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=69>

2014-11-21

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=70>

2014-12-04

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=71>

2014-12-18 (bidaltzeko aurreikusten den data)

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=72>

4.3- Berriz Berri Hileroko poster agenda



Deskribapena



1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda da Berriz Berria. Bertan, **hilero-hilero 10-12 albiste** argitaratzen ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileek deialdiak biltzen dituzte posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal erakundeena ere. Gehienetan elkarrekin edo gizarte eragileek eurek bidaltzen dituzte bere deialdiak eta albisteak Gazteriaren Kontseiluko Komunikazio Arloa, Berriz Berrian argitaratu ditzan. Bestela ere, komunikazio teknikariak bestelako albiste batzuk ere aukeratzen dituzte posterrak txertatzeko. Horrez gain, enkarteak ere egiten dituzte EGK-k: hau da, elkarrekin beraiek hala eskatuta, eskuorriak, kartelak, bideoak edota txostenak.



Zehazki, EAEko 1.350 postontzi ezberdinetara iristen da paperean. Gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udaletxe eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizarte etxeei bidaltzen die Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Horrez gain, Piztu! buletinarekin batera **beste 1.535 helbidetara iristen da**. Gainera, **Tuenti, Twitter eta Facebooken Gazteriaren Kontseiluak dituen 6.600 jarraitzaileei ere** helarazten zaie Berriz Berri poster agenda. Horiei guztiei www.egk.org webgunearen bisitariak gehitu behar zaizkie (29.000 bisita baino gehiago urtean), bertatik ere deskargatu baitaiteke.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte elkarten eta gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea*.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-90 euskaraz).

Ekintzak

- Deialdia / Idazketa / Maketazioa / Zabalpena.

Hartzaileak

- **Papereko alearen 1350 harpidedun EAEn**
 - o EGK-ko elkarteak.
 - o Beste elkarte batzuk.
 - o Gazte-bulegoak.
 - o Liburutegi eta gizarte etxeak.
- **Piztu! buletinaren bitartez 1.535 harpidedun:**
 - o EGK-ko elkarteak.
 - o Beste gizarte mugimendu batzuk.
 - o Gaztetxeak.
 - o Gazte-bulegoak.
 - o Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
 - o Harpidetza egin duten norbanakoak.

Jarraipena eta ebaluaketak

Urtariletik abendura bitartean Berriz Berri guztiak bidali dira, aurreikusi bezala. Berriz Berri guztiak lotura honetan ikusi daitezke:



<http://www.egk.org/eus/Argitalpenak%20.html#>

4.4- www.egk.org webgunearen kudeaketa



Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko webgunearen kudeaketa (www.egk.org). Gainera, 2014ko abenduaren 3tik aurrera (Euskararen Nazioarteko Eguna) Euskal Herriko beste webgune batekin batera, domeinu berria aktibatu dugu: www.egk.eus.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

www.egk.org atarian EGK-ren jardueraren informazio gaurkotua argitaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko albisteen berri ematea (jarduerak, argitalpenak, manifestuak, iritzi-artikuluak...).
- EGK-ko elkarten eta EGK-koak ez diren elkarten jardueren berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.
- Elkarten direktorio gaurkotua eskaintzea.

Ekintzak

- Webgunea (www.egk.org) edukiz hornitzea.
- Webgunearen mantentze egokia bermatzea (spam ezabaketa, iruzkinen kudeaketa).
- Webgunean berrikuntzak kudeatzea (aplikazio berriak).
 - o Hasierako orriaren diseinuaren berritzea.
 - o Spam-aren aurkako filtro berria.
 - o Argazki-galeriak argitaratzeko aukera.
 - o Bideoak txertatzeko aukera.
 - o Webgunearen goiburu nagusia aldatzeko aukera.

Hartzaileak


BISITAK:




Urtarrilaren 1etik abenduaren 1era:

- **29.923 bisita**
 - 90 bisita egunero, batz bestez.
 - Pikoak sortzen dira PIZTU buletina bidaltzen den egunetan, baita lan eskaintzetan ere.
- 21.180 bisitari bakar.
- 75.672 ikusitako orrialde.
- 69% bisita berri.

ADINAK: (%61a, 18-34 urte bitartekoa).



GENEROA:



BISITEN JATORRI TEKNOLOGIKOA:

23.372 bisita ordenagailutik, (iaztik konparatuz, %9a gutxiago)

5.381 bisita mugikorretik, (iaztik konparatuz, %44a gehiago)

1.170 bisita tabletetik, (iaztik konparatuz, %61a gehiago)

BISITEN JATORRI DEMOGRAFIKOA (kopuruaren araberrako ordenean):

- Bilbao.
- **Donostia.**
- Vitoria-Gasteiz.
- Madril
- Bartzelona.
- Iruñea
- Irun
- Zarautz
- Basauri
- Errenteria
- Eibar
- Arrasate
- Durango
- Leioa



- Tolosa
- Andoain
- Beasain
- Akitania (Frantzia)
- Hernani
- (...)

Jarraipena eta ebaluaketa

Google Analytics bitartez egiten ditu Komunikazio Arloak neurketak. Azken urtean, bisita kopurua berdintsua izan da.

4.5- Sare sozialen kudeaketa



Deskribapena

Sare sozialetan ditugun profilak eguneratzen ditu EGK-k ia egunero.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ren atarian EGK-ren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea, eta Gazteriaren Kontseiluko funtzioekin lotutako edukiak elkarbanatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- www.egk.org atariko **trafikoa** handitzea.
- EGK-ko **ekimen zehatzak** gauzatzea (adbdz.: RECacciona bideo lehiaketaren sariketarako bozketa / Twitterreko #EGK2015 lehiaketa).
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri **jasotzea**.
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri **ematea**.
- EGK-ren jarraitzaileekin **harremana** sendotzea.
- EGK-ren **marka** indartzea.

Ekintzak



la egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak sare sozialetan kudeatzen dituen profilak ([Twitter](#), [Facebook](#), Tuenti). Bestelako sare sozialen kudeaketaren aldizkakotasuna luzeagoa da ([Youtube](#) eta Instagram).

Hartzaileak

2014ko abenduaren 1eko datuak:

FACEBOOK:

3.654 jarraitzaile (2013an baino 182 jarraitzaile gehiago).

TUENTI:

1.014 lagun (2013ko kopurua mantendu da, asko erabili ez dugun sarea izan arren).

YOUTUBE:

19 harpidedun (2013an baino 3 gehiago).

INSTAGRAM:

43 jarraitzaile (2013an baino 16 gehiago, asko erabili ez dugun sarea izan arren).

TWITTER:

2.008 jarraitzaile (2013an baino 541 gehiago).

- **Tuit kopurua:** urtebetea, 1.500 inguru, 4,6 tuit egunero (130 hilero).
- **Generoa:**
%20 gizonak / %17 emakumeak / %62 ezezaguna).
- **Jarraitzaileen hizkuntza:**
%69 gaztelera / %26 euskara / %5 beste batzuk.
- **Elkarreragina:**
EGK-ri 397 aipu egin dizkiote, 310 retweet eta gure tuitak 946 aldiz faborito bezala markatu dituzte.
Erabilitako hashtag eta hitz nagusiak:
#GazteParteHartu
#Bakeahots
#asociación
#elkartea
#euskal
#gazte
#jóvenes
#ikasle

Guztira, **541 jarraitzaile berri** lortu ditu EGK-k, eta jarraitzaileekin **elkarreragina nabarmen handitu** da. **Gizarte eraginaren** maila ere nahiko ona lortu dugu, kontuan izanda EGK-k sare sozialak kudeatzeko dituen baliabideak. Urtetik urtera sare sozialak gehiago erabiltzen ditugu eta gure ekintza eta kanpainen zabalpenean oso erabilgarriak dira; urte amaieran ere **#EGK2015** lehiaketa abian jarri dugu hurrengo urteari begira gazteekiko ideiak eskuratzeko. Testuinguru honetan, **sare-sozialen kudeaketa gero eta**



profesionalago baten aldeko apustua egitea komeni zaio Gazteriaren Kontseiluari, gazteekin eta elkarteekin harremanetan egoteko bide zuzen eta eraginkorra izaten ari delako. Alegia: ez dira difusio tresna soil bat, EGK-ren helburuak gauzatzeko potentzial izugarriak dituen baliabideak baizik.

Jarraipena eta ebaluaketa

Eskatzen duen lanagatik, Komunikazio Arloak Facebook eta Twitterren jarraipen-txostenak egiten ditu, ez ordea intentsitate baxuagoarekin erabiltzen dituen gainerako tresnena (Tuenti, Instagram...). Esan bezala, hurrengo urteari begira, honen inguruko lanak eta jarduerak areagotuko ditugu.

4.6 Komunikazio kanpainak



Deskribapena

EGK-ren ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin.

- Pentsaurrekoak antolatu.
- Pentsa Oharrak idatzi.
- Iritzi-artikuluak txertatu.
- Deialdiak egunkarietako agendan sartzeko kudeatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratu.

Ekintzak



Plangintzarekin lotuta, hauek dira urtean zehar egin diren eta antolatzeko bidean dauden komunikazio kanpaina nagusienak:

‘GAZTEONTZAT ENPLEGU DUINA’ (Enplegua eta etxebizitza lan arloa ikusi)

Komunikazio kanpaina hau udazkenean egin behar zen baina azkenean azkenean 2015eko lehenengo hilabetetara eramatea adostu dugu. 2014ko hasieran “SOS gazte” kanpaina burutu zen eta medioetan izan zuen zabalpena oso nabarmena izan zen; horrelako efektu bat lortu nahi ba berriro eta 2015eko urtarrila/otsailean egingo dugu. Horrela ere, udazkenean egin ditugun beste kanpainekin ez nahastea lortzen dugu. EGK-ren presentzia medioetan handia izan da eta arrakasta handiagoa lortuko dugu aurrerago.

Dena den, kanpainaren diseinuan aurrerapenak egin ditugu enplegua eta etxebizitza lan arloarekin batera. Izena erabakita dago “prekarioka” eta prestatuko dugun ekintza komunikatiboa bidean da: prentsaurreko bat antolatuko dugu (gure web orrialdean eta sare sozialetan normalean egiten dugun zabalpenarekin batera) eta seguruenek tableroa tamaina handian inprimatuko dugu eta ekitaldi bat egingo dugu hedabideen aurrean

‘EKINTZAILETASUNAREN ALDE IZKUTUA’ (Enplegua eta etxebizitza lan arloa ikusi)

Kanpaina hau udazkenean burutu genuen eta, data horietan medioen aurrean izan genituen beste konpromisoa direla eta, ez genuen prentsaurrekorik antolatu. Zabalpena prentsa ohar baten bidez egin genuen eta EGK-ren web orrialdearen eta sare sozialen garrantzia nabarmena izan zen. Arrazoria: kanpaina hau zabaltzeko sortu genuen bideoa, ‘Gazte, ¿emprendes o empierdes? #EkinalaPLOF bideoa da, kanpaina berak izan zuen izenarekin.



Bideo hau inportantea da beste gauza batengatik: EGK barruan egindakoa da, kanpoan kontratua egin gabe eta enplegua eta etxebizitza eta komunikazio teknikarien artean egindako lanari esker gauzatu zen. EGK barnean lan egiteko aitzindari bezala har dezakegu bideo hau.

Kanpaina bezala ez genuen lortu zabalpena handiena momentuan, esan bezala, beste hainbat ekimen eskuartean genituelako. Kanpaina hau, ordea, oso erabilgarria izan da urte bukaeran egin ditugun elkarrizketa, tertulia eta agerraldietan. Eusko Legebiltzarraren gazte ponentziaren agerraldian, Itsaso Andueza presidentea ekintzailetzaren inguruan mintzatu zen eta Euskadi Irratiko Mezularia saioan hilabetero egiten den tertulian gai hau hizpide



izan genuen. Ekintzaileena eredu oso ona da Administrazioetatik gazteei "saltzen" diguten mezua erakusteko.

'GAZTEONTZAT PARTE HARTZERAKO ERREZETAK' BIDEOA eta GAZTE ERAGILEENTZAKO GIDA (Parte-hartze lan arloa ikusi)

Parte-hartze arloak parte hartzearen inguruko ikerketa egin zuen 2013an (2014ko martxoan aurkeztu zena) eta 2014rako ere ikerketa honen zabalpena egiteko bideo bat aurreikusita zegoen. Horrela egin zen eta maiatza bukaeran sare sozialetan argitaratu zen prentsara bidalitako ohar batekin batera:



Bideoa EGK-ko bi Youtube kanaletan igota dago eta, hilabete hauetan, ia 400 bisita lortu ditu. Hortik aurrera, EGK-k parte-hartzean izan duen diskurtsoan eragina izan du eta egindako agerraldi edo hitzaldi publikoetan erakutsi da.

2013an egindako ikerketa eta bideoa osatzeko, gazteen parte hartzerako gida uztaila hasieran aurkeztu zen. Medioetara oharra bidali zitzaizen eta prentsaurreko bat ere deitu genuen Bilboko egoitzan. Eragina ona izan zen, batez ere irratietan agertu zen eta 4-5 egunkarietan. Kanpaina honen xehetasun gehiago parte-hartze lan arloan ikus daitezke.



Hauek dira urte hasieran aurreikusten ziren ekintza komunikatibo potenteenak; urtean zehar, aldiz, beste hainbat ekimenek ere garrantzia hartu dute.

LEHEN AUKERA (Enplegu eta etxebizitza lan arloa ikusi)



2013ko bukaeran Eusko Jaurlaritzak Lehen Aukera bekak atera zituen. Enplegua lan taldearen barnean beka hauen baldintzekin ez zeuden batere pozik eta, horregatik, dokumentu bat sinatzea erabaki zen egoera hau salatuz. Apirilaren 14an honen zabalpena egin zen Gasteizko EGK-ko egoitzan egindako prentsaurreko baten bidez eta arrakasta handia izan zen: ETB, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Berria, El Correo, beste hainbat irratia...



Uneko arrakastaz gain, EGK-ren lana zein den azaltzeko eredu oso ona izan da. Denborarekin ere, harrotasunez “jarduera honi buruz Lehen Aukera beken bigarren deialdiaren baldintza hobeto zirela” esateko aukera izan genuen. Horrela da, abuztuan zehar deialdi berria atera zenean egindako lan guztiak merezi zuela ikusi genuen eta hau aipatzeko, gutun ireki bat kaleratu genuen. Honen harira gure izena politikarien diskurtsoetan entzun dugun: Lehendakariak, sailburuek eta legebiltzarkideek EGK eta Lehen Aukera aipatu dituzte. Lehen Aukeraren xehetasun gehiago jakiteko, enplegu eta etxebizitza atala ikusi.

BAKEA ETA BIZIKIDETZA LAN ARLOAREN EKINTZAK (Bake eta Bizikidetzaren lan arloa ikusi)

Ekaina hasieran EGK-k eta Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak hitzarmen bat sinatu zuten. Itsaso Andueza presidentea eta lehendakariak bilera eta prentsaurrekoa eskaini zuten hurrengo hilabetetan landu behar genituen ekintzen ildoak markatuz. Aurkezpen ekitaldi hau Irekian (Jaurlaritzaren portalean) ere bere atala izan zuen.



Udan zehar lanketa egin eta gero, bake eta bizikidetzaren lan arloaren lehenengo prentsaurrekoa antolatu genuen Donostian. Bertan, hurrengo asteetan egin behar genituen ekintzak aurkeztu genituen, baita www.bakeahots.org ataria. Betiko prentsa oharra egiteaz gain, ekintza hauek zabaltzeko bi jarduera berezi antolatu genituen:



- Lehendakaritzako komunikazio arduradunekin batera, egunkari eta irratieta gai politiko hauek lantzen dituzten kazetarien kontaktu zuzena eskuratu genituen: Euskadi Irratia, Radio Euskadi, ETB, El Correo, Deia eta El Diario Vasco... lotura hau oso erabilgarria izan zen ekintzak iragartzeko eta kontatzeko.
- Formazioa eta Bake Ibilbideak ezagutzera emateko, iragazki kanpaina bat burutu genuen: Gaztea, 40 Principales Bilbao, Gaztezulo, Argia, Aktual, Gazteberri eta El Karma izan ziren aukeratu genituen medioak, Euskadi mailan gazteekin lotura handiena dutenak



Lortutako zabalpena garrantzitsua izan zen eta hau ez da hemen gelditzen. Sesio hauetatik atera zen materialak lantzen ari gara oraindik; laster bideoak prest izango ditugu eta 2015ean dokumental bat egiteko aukera sortu da. Ekintza hauen inguruan xehetasun gehiago jakiteko, bakea eta bizikidetzat lan arloa ikusi.

Bestalde, urrian ere Itsaso Andueza Bake eta Bizikidetzat Planaren Aholku Kontseiluko burua izendatu zuten Lehendakarietatik. Honen berri eman genuen bere garaian eta Lehendakariarekin bildu zenean; hanbat mediori argi utzi genien lan berri hau EGK-ko presidentziarekin batera egingo zuela eta honetan parte hartzeagatik dirua jasoko ez zuela.

GASTEIZKO GAZTE ASTEA (Gasteizko parte-hartze lan arloa ikusi)

Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinaturiko hitzarmenari esker, Gazte Astea antolatu zen urrian zehar. Gazteentzako ekintzak ziren eta, besteen artean, Hiruburuak izan ziren nobedadea: politikarien, teknikarien eta gazteen arteko topaketak gazteentzat interesgarriak diren gaiak lantzeko, etxebizitza, enplegua eta proiektu autogestionatuak. Horrelako ekintzetan arrakasta izateko gure asmo nagusia hauek gertatu baino lehen zabalpena lortzea zen; hau egiteko, triptikoak eta kartelak inprimatu genituen, sare sozialak eta gure webgunean mugimendu asko eman genion eta prentsaurreko bat egin genuen Udalarekin batera. Bertara ez ziren kazetari asko hurbildu baina beranduago ere medioekin jarri ginen harremanetan, Udaleko laguntzarekin, jardueren berri emateko.

Noticias de Álava egunkarian atera zen hiru orrialdeko erreportaje hau lortutako zabalpenaren nabarmenena izan zen.



Ekintzak egin ostean, ondorioak ezagutzeko ere buru-belarri ibili ginen. Udaleko Batzordeetan parte hartzeaz gain, bideo bat prestatu dugu eta txostenekin batera gure web orrialdean eta sare sozialetan jarri da. Ekintza hauen inguruan xehetasun gehiago jakiteko, Gasteizko parte-hartze lan arloa ikusi.

GAZTE PONENTZIA (Presidentziaren lan arloa ikusi)

2014ko azaroaren 18an, lehenengo aldiz, Gazte Ponentzia bat abian jarri zen Eusko Legebiltzarrean. “Gazteriaren arazoan azterketa eta eztabaidarako eta haiei erantzuna emateko lan taldea”-ren izenarekin, EGK parte hartzen lehenengoa izan zen eta, honen inguruan ahalik eta informazio gehiena emateko, prentsa ohar bat prestatu genuen egun berean zabaltzeko. Ohar honetan “ponentzia” edo “batzorde” baten funtzionamendu azaltzen saiatu ginen, medioek argi izateko, eta ate itxiekin izan arren, EGK-k eman behar zuen mezuaren laburpena bidali genien medioei.



Agerraldia telebista eta egunkarietan eman zuten. Garrantzitsua ere bada bertan hitz egin zelako EGK-ren mezuaren eredia delako, hau da, Itsaso Andueza presidentek esan zuena gure ekintza eta eginkizunen laburpen oso ona da EGK zer den ezagutzeko.



KOMUNIKAZIO ARLOAREN BESTE EKINTZAK

Gainera, ezin ditugu ahaztu, hedabideetan presentzia izan duten beste hainbat ekimen:

- Ipar Irlandara egindako bidaia, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren esperientziak ezagutzeko.
- Urte bukaeran Ipar Irlandakoek bisita itzuli ziten eta EGK protagonismoa izan zuen Bilbon Eusko Jaurlaritzak antolatu zituen jardunaldi batzuetan.
- EGK-ren 33. Batzar Orokorra (martxoan egin zena).
- Legebiltzarrean egindako agerraldia, apirilean, 2014ko memoriak eta 2015eko plangintza aurkezteko.
- Euskadiko Aisialdi taldeek antolatutako udalekuen, ikastaroen eta ekintzen iragarpena.
- Astialdi Foroaren webgune berriaren zabalpenean lagundu: www.astialdiforooa.org
- 2013an egindako Campamento en el Parlamento / Kanpalekua Legebiltzarrean topaketen ondorioen zabalpena
- #Sos Gazte Atzerriratuak. ¡Manda tu postal contra el exilio laboral! kanpainaren aurkezpena. Ekintza 2013an egin zen baina zabalpena 2014ko lehenengo egunetan.
- Urte bukaeran egindako #EGK2015 Twitter lehiaketa. Sare sozial honetan 2.000 jarraitzaile izatera lortu dugula ospatzeko eta hurrengo urteari begira ideiak jasotzeko.
- Espainiako Gobernuak proposatutako "Herritarren Segurtasun Legea"-ren kontrako idatziaren zabalpena.
- Gazteak eta etxebizitzaren inguruko hainbat ekimen. Barakaldoko gaztetxearen itxieraren inguruko oharra.
- Lanean hildako gazteen buruzko protokoloaren aktibazioa, birritan egin dena.

Bukatzeko, aurten medioetan inoiz baino gehiago atera gara: kazetariak gure ekintzen berri eman digute eta gazteen inguruko gaiak jorratu behar direnean EGK erreferentea bilakatzen hasi dela uste dugu. Horrela, irratiko tertulia, telebista programa edo egunkari batetik gazteen errealitatearen inguruan EGK-ren ikuspuntua ematera gonbidatzen gaituztenean, ia beti baiezkua ematen dugu. Honetan lan ordu asko sartu ditugu 2014an zehar, baina EGK-ren mezua zabaltzeko eta gazteen egoera ikustarazteko oso garrantzitsua dela uste dugu.

Hartzaileak

Komunikabideetako irakurle/entzule/ikusleak

EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.

EGK Internet bitartez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.

Jarraipena eta ebaluaketa

EGK-k komunikabideetan dituen agerpen guztien jarraipena egiten du. 2014an zehar komunikabideetan izan ditugun agerpen guztiak ikusi nahi badituzu, esteka honetan bildu ditugu:

https://docs.google.com/spreadsheets/d/1FnHFewyzf1trJUO2mJzYW-1Hfeb17kD_yeQ5LxXAryQ/edit?usp=sharing



4.7 Barne komunikazioaren kudeaketa eta beste batzuk

Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan komunikazioa errazteko ardura du Komunikazio Arloak, bai teknikarien artean, bai teknikarien eta Batzorde Iraunkorren artean, bai eta Batzarra osatzen duten elkarteekin komunikazioa ere. EGK-ren barne-komunikazioak EGK-ren funtzionamendua eta eraginkortasuna bera baldintzatzen du.

Helburuak

Helburu orokorrak:

EGK-ren baitako barne-komunikazioa hobetu.

Helburu zehatzak:

EGK-ko arlo tekniko ezberdinen arteko komunikazioa erraztu.

EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorren arteko komunikazioa indartu.

EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.

EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorri komunikazio-laguntza eman

Ekintzak eta epeak

Urte osoan zehar hainbat lan egin behar ditu komunikazio arloak EGK-ren barne komunikazioa ahalik eta emaitza onenak izteko:

- EGK-ren lanarekin zerikusia duten gaurkotasuneko albisteak bildu eta langileen artean banatu. Egunero EAE, Euskal Herriko eta Espainia mailako 12-15 egunkari eta aldizkari begiratzen ditugu eta, zerbait interesgarria aurkitzean, teknikari bakoitzari edo guztiei bidaltzen zaie.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak teknikariei bidali. Kanpaina bakoitza egiten denean, emaitzen berri ematen zaie.
- Batzorde Iraunkorrak eta Batzarreko elkarteek EGK-ren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGK-ren tresnen bitartez (buletin digitalak, e-maila...). Cristina administratiboarekin batera egiten den lana da hau.
- Teknikariei (eta Batzorde Iraunkorri hala eskatzen badu) komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Hartzaileak

EGK-ko teknikariak, Batzorde Iraunkorreko kideak eta Batzarreko elkarteak.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Teknikariekin eta Batzorde Iraunkorrekin komunikazio enlazeekin (Diana González eta Iker Montes) ekintza honen jarraipena egiten da.



5. GASTEIZKO HITZARMENA

5.1. Gazte Topa

Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta Gasteizko udalak hitzarmen bat sinatzen dute. Hitzarmen honi esker EGK-k Gasteizko gazteen parte-hartzea bultzatuko duen teknikaria martxan jartzen du, Gazte Topa dinamizatuz. Bertan plangintzan garatutako bi puntu jorratzen dira, bai Gazte Planaren edukiak aztertzea, eta hauei ekarpena egitea, baita gazte elkarte ezberdinen elkar ezagutza bultzatzea ere.

Helburuak

Helburu orokorra:

- Vitoria-Gasteiz-ko politika publikoetan gazteriaren parte-hartzea bultzatzea.

Helburu zehatzak

- Gazteriaren eguneroko lana azalarazi eta gazte elkarteen arteko harremana bultzatzea.
- Vitoria-Gasteiz-ko III Gazte Plana aztertzea.
- Eztabaida eta akordioetarako espazioa sortzea, kargu politiko, pertsonal tekniko eta gazteen artean.
- Gazte elkarteen arteko ezagutza eta elkarlana bultzatzea.

*Plangintzarekiko aldaketak jasan dituzte helburuak, dinamiken eta beharren birplanteazioa egon baitzen.

Hartzaileak

- Gasteizen bizi diren gazteak eta bertako gazteak.

Ekintzak

Gazte Topa hasieran hilean behin bilerak egiten hasten da, Gasteizko III Gazte Plana aztertzeko. Elkarreetan dauden gazte eta norbanakoen arteko ezagutza dinamikak ginez talde bat sortzen da. Talde hau planaren akzioak hausnartu eta ekarpenak batzen ditu.

Bilera hauen helburuetako bat gazte elkarteen arteko ezagutza eta elkarlana bultzatzea. Askotan lan arlo berdina jorratzen duten hainbat elkarte ditugu hiri berean, eta ez dute elkar ezagutzen. Bilera hauek elkar ezagutza erraztu eta harremanak bideratzeko balio izan dute.

Bilera hauetan Vitoria-Gasteizko III Gazte Planaren aztertzea hasi zen, ekarpenekin txosten bat garatuz, parte-hartze teknikaria eta EGK-ko enplegu arloko teknikariaren laguntzaz, gai hau baitzen aztertu zena (ikus ANEXO1). Txosten hau gazteria teknikariei eta batzorde horretan zeuden politikariei bidali zitzaion.

Beste alde batetik, Gazte Astea sortzearen ideia pizten da, egiten ari den lana teknikari eta politikoekin egiteko ere. Hiruburuak(plangintzan planteatuak) aste honen ardatz izango



direlarik.

5.2. Gazte Astea

Deskribapena

GAZTE ASTEA Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bultzatutako ekimena da. 2014ko irailetik 2015eko otsailera diraun dinamika hau gazteen parte-hartzea bultzatzea du helburu.

Proiektu honen bitartez Kontseiluak Gazte Planaren ekintzak gazteekin kontrastatzea ze nolako garrantzia duen islatu nahi du. Honetarako, Gazte Astea, Gazte Toparen laguntzaz diseinatua, gazteen, politikarien eta teknikarien arteko prozesu parte-hartzailea martxan jartzea lortu du. Eztabaida eta akordioetarako espazioak sortu ditu, non gazteentzako garrantzitsuak diren gaiak ardatz izan diren(enplegua, etxebizitza eta proiektu autogestionatuak).

ERASMUS+ laguntzari esker aurrera eraman da proiektua, Key Action 3 programaren barruan.

Helburuak

Helburu orokorra:

- Eztabaida eta akordioetarako espazioa sortzea, kargu politiko, pertsonal tekniko eta gazteen artean.

Helburu zehatzak:

- Vitoria-Gasteiz-ko politika publikoetan gazteriaren parte-hartzea bultzatzea.,
- Gazteriaren eguneroko lana azalarazi eta gazte elkartearen arteko harremana bultzatzea.
- Vitoria-Gasteiz-ko III Gazte Plana aztertzea.

Hartzaileak

- Gasteizen bizi diren gazteak eta bertako gazteak.
- Udaleko teknikariak.
- Kargu politikoak.

Ekintzak

Gazte Astea hiru zatitan bereiziko dugu:

1) Prestakuntza, kontaktu erronda ezberdinak egin eta ideia azaltzen hastea. Baita hainbat bilerak, bai Gazte Toparenak bai EGK-ko teknikarien bilerak, ekintzak erabakitzeko, aurrera eramango ziren dinamikak hausnartzeko etab.

2) Garapena eta ebaluazioa. Ekintzez beteriko bi aste, HIRUBURUAK ardatz izanda, eta ondorengo ebaluazioak.

Hiruburuak eztabaidarako guneei deitu zaie, bertan parte-hartzera zeuden hiru perfil ezberdinak zirela eta, politikari, teknikari eta gateak, alegia. Landu diren gaiak enplegua,



etxebizitza eta proiektu autogestionatuak izan dira, planaren akzio konkrituak aztertu dira, gazteriaren ikuspuntua jaso eta ekarpena egin ahal izateko.

- **Gazteak eta Enplegua**

Topaketa honetan Gasteizko 20 gazte, gazteria eta enplegu arloko 3 teknikari eta 4 kargu politiko batzen dira. III Gazte Planaren hiru akzio zehatz eztabaidatzen dira (Planaren horrela izendatuak daude): Primera experiencia laboral, contrataciones en el Ayuntamiento mediante la categoría alumno/trabajador y las cláusulas sociales en la contratación municipal.

- **Gazteak eta Etxebizitza**

Topaketa honetan Gasteizko 13 gazte, gazteria eta Ensanche21 arloko 3 teknikari eta 6 kargu politiko batzen dira. III Gazte Planaren neurri bat azterten (Programa de viviendas en alquiler para jóvenes) eta "masoveria urbana" nola sartu litekeen hausnartzen da.

- **Gazteak eta Proiektu autogestionatuak**

Topaketa honetan Gasteizko 11 gazte, gazteria eta gizarte etxeetako 3 teknikari eta 4 kargu politiko batzen dira. Proiektuak garatzeko sortzen diren oztopoak eta egon daitezkeen baliabideetaz eztabaidatzen da.

Hiru topaketetan ateratako emaitzak sozializatzeko, eta ahalik eta jende gazte gehiena erakartzeko ebaluazio festa egin genuen, musika talde baten kontzertua eta guzti, gazte asko erakarri. Bestalde artisau eta artista gazte ezberdinak euren lanak erakutsiz merkatu txikia osatu zuten eta gastronomia elkarte batek pintxoak sukaldatu zituen enparantzan bertan. Guzti hau egindako proiektua gazte zein edozein herritarrei luzatzeko. Beharrezkoa da plazaratzea horrelako ekimenak egin eta gero, herritarrek ikus dezaten gazteok egiten duten lana, gazteriaren parte-hartze nahia eta EGK-k aurrera ateratzen dituen proiektuak ikus daitezkeen.

3) Emaitzen zabalpena

Hiru bide hartzen dira hau aurrera eraman ahal izateko. Lehenengoa parte-hartzaileekin. Gure ustez, ekarpenak parte-hartzaileei helaraztea oso beharrezkoa da. Are gehiago gazteei, euren parte-hartzeak fruituak ematen dituela ikus dezaten, benetan zerbaiterako balio duela ikus dezaten.

Bestalde, Udaleko batzordeetan aurkezpena, teknikari, politikari eta gazteen arteak hartutako erabakiak espazio hauetan kontuan izan ditzaten. Baita gazteria arlotik bultzatzen eta egiten den lanaren garrantzia ikustarazteko ere.

Hirugarren bidea ekarpenen txostena (ikusi ANEXO 2 eta 3) eta laburpen bideoa ahal den jende gehienara zabaltzea da, teknologia berriak eta sare sozialez baliatuz honetarako.

Bideoaren lotura: <http://goo.gl/065cQy>



6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

2013. urtean Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Bake eta Bizikidetza arloak lantzeko akordiora iritsi ziren. Ondorioz, 2014ko ekainaren 6ean, Gasteizen, bi aldeen arteko hitzarmen bat sinatu zen, “Euskadiko 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana garatzeko gazteriaren eta heziketa ez-formalaren jarduera-lerro espezifikoak partekatzea, diseinatzea, garatzea eta gauzatzea” helburu zituelarik. Era honetan, EGK-k abenduak 31a baino lehen, Plan honen 17. ekintza-programaren barruan dauden lau proiektuak burutzeko konpromisoa hartu zuen: prestakuntza-programa; espazio irekia; elkarte eta gazteen topaketa eta erreferentzia-funtsa. Hitzarmen honi esker, EGK-k 2008an bertan behera utzitako lan ildoak berreskuratzen du eta lan arlorako teknikari bat kontratatzen du. Hala ere, arlo honetan proiektuak garatzeko zeukan ikuspegia birpentsatu behar izan du Kontseiluak, urte hauetako gertakizunek testuingurua eta bizikidetza klima aldatu dituztelako eta gazteen esperientziei, beharrei, interesei, ezaugarriei, hots, ahotsari erantzun egokiena ematea bilatu nahi delako. Halaber, hitzartutako lau proiektu hauek gauzatzeaz gain, EGK-k Bake eta Bizikidetza lan arloarekin lotuta dauden beste zenbait ekintzetan parte hartu du. Hauek “Beste bake ekintzak” atalean ikus daitezke.

Helburuak

Nahiz eta proiektu bakoitzaren atalean helburu espezifikoak azaldu, hauek dira hitzarmenaren ekintza guztietan bilatu diren zeharkako helburuak:

- Gazteak bakea finkatzeko orduan partaide direla sentitzea.
- Gazteak beren esperientziak, beharrak eta interesak entzunarazi ahal izateko, baita bakearen eta bizikidetzaren arloan ere, bere esparrua edukitzea.
- Gazteek bakearen eta bizikidetzaren gainean dituzten iritziak eta esperientziak entzun eta erantzutea.
- Gazteriaren eremuan bakearen, bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta giza eskubideen aldeko gizarte eta hezkuntza arloko konpromisoa partekatzea.
- Bizikidetza-gatazken tratamendu eraikitzaileko tresnak gazteen eskura jartzea.
- Sormena, ekintzailatza eta berrikuntza soziala sustatzea gazteen artean bizikidetza-proiektuei dagokienez.

Hartzaileak

- EAEko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak (EGK-ren barruan edo kanpoan dauden erakundeetako gazteak eta bai elkartegintzaren munduan ez dihardutenak).

Ekintzak

Hitzarmenean adierazten den bezala (eta proiektuak garapen paraleloa izan arren), plazaratu zen lehenengo proiektua espazio irekiarena izan da, *Bakeahots* komunitate birtuala, alegia. Iraila bukaeran eskaini zen prentsaurrekoa eta bertan formakuntza saioen eta Bake Ibilbideen datak ere erraztu ziren. Hilabete erdi beranduago (azaroan) Bake Asteak hasi ziren: Bilbon (bigarren astean), Gasteizen (hirugarrenean) eta Donostian (azkenekoan). Aste berdinean, formakuntza saioa lehenbizi (asteartetan) eta Bake Ibilbidea



gero, (ostegunean edo ostiralean) egiten ziren. Bake Asteei amaiera emandakoan, abendua hasieran, azkeneko proiektuaren planteamendua idatzi zen, erreferentzia-funtsarena. Proiektuak aurrera eramaten ziren bitartean, EGK-ko talde teknikoak eskatzen zituen ardurak, hitzarmenak eskatzen zuen lan burokratikoa, erakunde ezberdinekin bilerak eta bake eta bizikidetzarekin lotutako beste ekintza batzuk egin zirela esan beharra dago.

1. FASEA: HASIERA (ekaina eta uztaila)

- EGK-ko Bakea lan ildo ohiaren proiektuen irakurketa.
- Hitzarmenaren beharretara egokitutako erakundeen datu basea egin.
- Hitzartutako proiektuentzako ideien garapena eta behin behineko justifikazioaren erredakzioa.
- EGK-ko Bake eta Bizikidetzaren lan arloaren irudi korporatiboa sortu.

2. FASEA: PROIEKTUEN DEFINIZIOA (iraila eta urriaren lehenengo erdia)

- Proiektu bakoitzarentzat pentsatutako ideiaren bideragarritasuna aztertu.
- Hitzartutako proiektu bakoitzaren planteamenduaren diseinua egin.
- Erakunde ezberdinekin aurkezpen bilerak egin eta ondorioak atera.

3. 3 FASEA: PROIEKTUEN ZABALPENA ETA GARAPENA (urriaren bigarren erdia, azaroa eta abendua)

- Ekintzak plazaratzeko komunikabideen aukeraketa egin.
- Proiektuak garatzeko beharrezkoa den logistika diseinatu eta materialak prestatu.
- Ekintzak zabaldu.
- Ekintzak gauzatu.
- Hitzarmenaren ebaluaketa egin, baita proiektu bakoitzarena ere.
- Memoriak idatzi.

Jarraipena eta ebaluaketa

1. Jarraipena:

Hitzarmenaren helburuak eta proiektuak betetzen zirela ziurtatzeko, eragile ezberdinekin jarraipena bilerak egin dira; eta bai posta elektronikoz zein telefonoz, hauekin harremana maiztasunez mantendu da. Hitzarmen honen gainean egon diren eragileak hauek izan dira:

- EGK-ko talde teknikoa eta presidentea bereziki.
- EGK-ko Batzorde Iraunkorra eta bereziki Bake eta Bizikidetzako teknikariaren lotura dena: Gazte Komunistak elkarteko Jorge Alonso lehenbizi eta ondoren, Adrien Grivillers.
- EJ-ko Jarraipen Batzordeko kideak.

Proiektuaren arabera, beste eragile batzuekin harremana mantendu eta bilerak egin dira, baina proiektu bakoitzaren atalean azalduko da.

2. Ebaluaketa:

EGK-rentzat aukera paregabea izan da EJ-ko Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzarekin hitzarmena sinatzea, baina denbora gutxi egon da lau proiektuak epea baino lehen behar



bezala gauzatzeko. Alde batetik, inplikaturako eragileen lan orduak eta denborak udarako hilabetetan murrizten direlako, beraz lana “eten” egiten da. Gainera, abenduan ezinezkoa da ekintzak gauzatea, ondorioak ateratzeko, memoriak idazteko, azken finean, urtea ixteko hilabetea delako. Bestetik, EGK-ren idiosinkrasia dela eta, teknikariek egindako lanak filtro asko pasa behar dituzte proiektuaren izaera eta forma onartuta izateko: talde teknikoa, Batzorde Iraunkorreko lotura eta Batzordea bera. Ondoren, EJ-ko Jarraipen Batzordeari helarazi behar zaio eta horrek bere oniritzia eman, azkenik, proiektua garatzen hasteko. Filtro bakoitzak denbora behar du proiektuak irakurri, haien gainean hausnartu eta ekarpenak egin ahal izateko, azkenik, teknikariek egindako hausnarketak eta ekarpenak dokumentu berrian txertatu behar direlarik. Horrez gain, bilera ezberdinak egiteko eta proiektuen aurkezpena egiteko, erkidegoko beste hiriburuetara edo udalerrietara mugitzera bultzatuta daude EGK-ko teknikariak, eta honek ere bulegoko lan-orduak murrizten ditu. Horrek guztiak, ekintza gehienak azaroan burutzera eramane du. Azaroan, eta udazken osoan orokorrean, elkarte gehienek beraiekin ekintzak prestatzen eta burutzen dituzte baita ere, beraz, gazteei deialdia helaraztea nahiko zaila da, estimulu askoren artean EGK-koa aukeratu behar dutelako. Eta elkarteetako gazteek parte-hartzea oso zaila izaten da, euren elkartearekiko konpromisoa handia delako. Lau proiektuen definizioa hitzarmenean azaldu arren, informazio gutxi egon da abiapuntu bezala proiektuak ekintza zehatzetan bihurtzeko. Halaber, zailtasunak egon dira proiektuaren ideia eta forma Jarraipen Batzordearekin adosteko, nahiz eta azkenean elkar ulertzea lortu den.

Bestetik, lau proiektuak gauzatu eta gero, hauek izan dira ateratako ondorio orokorrak:

- Gaur egun gazteontzat bake eta bizikidetzarekin zerikusia duten proposamenak bigarren mailako kezka dira. Langabezia eta emantzipatzeko aukeren murrizketa direlako kezka nagusiak.
- 2011. urtetik ikusten den indarkeria politikoa desagertu egin da: hildakoak, bahiketak, estortsioak, torturak; baina horrek ez du esan nahi bizi dugun testuinguruaren klima emozionala osasuntsua denik. Indarkeria politikoak horrenbeste urtetan zehar sortutakoak nabariak dira oraindik gure burua eta mundua ikusteko eraikitzen dugun eran, baita harremantzerakoan. Baina ikusten ez denez, garrantzia kentzen zaio.
- Erakundeetan ez dauden gazteetara iristeko zailtasunak egon dira, baita parte-hartzeko grina pizteko orduan: hedabide tradizionalek ez dute gazteengan eragina, baina sare sozialetan oso zaila da ere gai hauekiko interesa piztea: estimulu gehiegi daude.
- Administrazioak eta beste erakundeek antolatutako bake eta bizikidetzaren arloko beste ekimenetan parte hartu duten gazteek, arrazoi ezberdinengatik ez dira guztiz lasai aterata: adostasuna lortzeko ezintasuna, pertsonen ideologizazioa, besteen diskurtsoekiko mesfidantza, etab. “Ez didate konbentzitu eta nik ez dut inor konbentzitu nahi”, hori da gehien entzuten den esaldia. Hau da: konbentzimendutik hausnarketara pasatzeko zailtasunak daude.
- Esandako guztiaren gainetik, saioak oso baikorrak eta aberasgarriak izan dira, eta gazteak ekintzen protagonistak sentitu dira. Gainera, hausnarketarako giroak erraz sortu dira (talde txikietan hobe handietan baino) eta errepikatzeko jarrera azaldu dute. Ekintzetako dinamiken originaltasuna ere gustukoa izan dute.
- EGK-k antolatzen dituen beste ekintzetan ez bezala, elkartegintza munduan ez dauden gazte asko hurbildu dira. Aurpegi berriak ikusi dira, oso parte-hartzaile aktiboak eta diskurtso landuekin. Zabalpenean egindako ahalegin bereziak bere fruitua eman du. Hau oso esanguratsua da EGK-rentzat: gazteak beste errealitateak bizi eta sentitu



dituzten gazteekin elkartu nahi direla agerian uzten duelako. Hala ere, zuzenean gonbidatuak izan arren, ideologia zehatz batzuetako gazteak ez dira ekintzetan azaldu.

- Saioetan ez da errespetu faltarik egon, ezta tentsiozko egoerarik sortu. Parte-hartzaileak gaiak sortzen duen minaz, mesfidantzaz, lotsaz edo beldurraz kontziente izan dira une oro, beraien artean paktu isil bat zegoela zirudien, alegia. Gainera, asko baloratu dute beste errealitate baztut bizi izandako gazteek aurpegia, ahotsa, emozioak jartzea, zuzenean zalantzak galdetzea eta espazio ludikoak partekatzea.
- Beste ekintzetan ez bezala, mutilak ere hurbildu dira (partaidetza oso feminizatuta dago). Gainera, gazteak normalean bakarka etorri dira, lagun gabe, gauza arraroa pentsatzen badugu gai hauetaz hitz egiteko gertuko norbait nahiago dugula ezezagun bat baino. Baina agian hemen alderantziz gertatzen da: lagunak oztopo izan daitezke izaeraren alde ezkutu bat ezagutu dezaketelako.
- Zein gizarte motan bizitzea espero duten galdetu zaienean, erantzuna oso hunkigarria izan da: “Ekimen hauetan konpartitu ditugun momentuak bezala: elkarrekin, errespetatuz, tolerantziaz, hitz egiten”.

6.1. “Gazteak biolentziaren aurrean: bizikidetza sustatuz” formakuntza saioa

Deskribapena

EGK-k formakuntza saioak jorratuko zituen ildo tematikoak, helburuak eta metodologia definitu zituen. Baina Bakeola eta Gernika Gogoratuzeko teknikariak (Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa medio) izan ziren forma eman ziotenak eta EGK-ko teknikariekin batera gauzatu zutenak. Galdera hauek abiapuntutzat harturik, gazteon artean hausnarketa sustatzea zen helburua: *Zer uste dugu biolentzia politikoaren inguruan? Zer indarkeria mota daude eta nola identifika ditzaket? Zer aurreiritzirekin bizi gara eta zer eragina dute gure harremanetan? Nola eraikitzen ditu norberak “etsai” eta “lagun” kontzeptuak? Nola justifikatzen ditugu gure kontraesanak eta besteenak? Eta, batez ere, nola kudeatu ditzakegu sortzen diren desadostasunak eta gatazkak? Elkarrekin bizitzetik, bizikidetzara pasa gaitezke?*

Helburuak

Proiektuaren helburu espezifikoak hauek dira:

- Norberak jaiotzean, haztean eta inguru batean harremanak izatean sortu duen diskurtsoaren inguruan hausnartzea; ezberdin pentsatzen duten beste gazteek nola bizi izan duten prozesu hau ulertzeko.
- Giza Eskubideen ikuspegitik, gatazken konponketarako erabili daitezkeen tresnak ezagutzea.

Hartzaileak

- EAEko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak izan dira.
- Gizartea bere osotasunean

Ekintzak

**1. FASEA: PRESTAKUNTZA (uztaila, iraila eta urriaren lehenengo erdia)**

- Formakuntza saioaren ildo tematikoak, helburuak eta metodologia definitzea.
- Bakeola eta Gernika Gogoratuz erakundeetako teknikariekin lan-harremana sortu.
- Formakuntza programa eta edukiak diseinatu.
- Erabiliko diren materialak prestatu eta gelak erreserbatu.

2. FASEA: ZABALPENA ETA FORMAKUNTZA SAIOEN GARAPENA (urriaren bigarren erdia eta azaroa)

- Formakuntza saioen deialdia plazaratzeko komunikabideen aukeraketa egin.
- Zabalpena egin.
- Formakuntza saioak gauzatu:
 - o Bilboko EGK-ko egoitzan: azaroak 11ean.
 - o Gasteizko EGK-ko egoitzan: azaroak 18an.
 - o Donostiako EGK-ko egoitzan: azaroak 25ean.
- Formakuntza saioen ebaluaketa egin.

Jarraipena eta ebaluaketa**1. Jarraipena:**

Prestakuntza-programa proiektuaren helburuak betetzen zirela ziurtatzeko, eragile ezberdinekin jarraipen bilerak egin dira; eta bai posta elektronikoz zein telefonoz, hauekin harremana maiztasunez mantendu da:

- Jose Antonio Dorronsoro, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroaren presidentea.
- Maider Martiarena, Bakeolako teknikaria, eta Andreas Schäfter, Gernika Gogoratuzeko teknikaria.

2. Ebaluaketa:

Formakuntza saioetako **datu orokorrak**:

- Formakuntza saio bakoitzean gutxienez bi teknikarik osatzen zuten talde dinamizatzailea.
- Talde dinamizatzaileak saio guztietan azalpenak elebitan eman zituen eta parte-hartzaile bakoitza eroso sentitzen zen hizkuntzan hitz egin zezakeela bermatu zuen, gero taldeari esandakoaren itzulpena eginez.
- Guztira 16 eta 30 urte bitarteko 42 gazte eta 42 urteko bat hurbildu ziren formakuntza saioetara (23 emakumezko eta 20 gizonezko).
- Parte-hartzailearen gehiengoa formakuntza saioa gauzatu zen hiriburuan bizi zen, baina lurraldeko beste udalerrietatik ere gerturatu ziren. Baina orokorrean gertutik.
- Parte-hartzaileen erdia baino gehiago erakunde baten partaide ziren, baina elkartegintza barruan ez diharduten gazte asko hurbildu ziren, gehienak, bakarrik.

Parte-hartzaileen artean banatutako ebaluaketa orriari esker, ondorio hauek atera dira:

- Parte-hartzaileek formakuntza saioen deialdiaren berri, batez ere, internet bidez (buletinak, posta elektronikoa eta sare sozialak barne) eta ahoz-ahoz bitarte izan dute. Beste informazio bideak irratia edo erakunde baten bitartez izan dira.
- Parte-hartzaile gehienak gaia interesgarria delako etorri dira formakuntza saioetara, beste errealitate batzuk eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko asmoarekin. Beste



arrazoi batzuen artean hauek daude: EGK ezagutzea, ekintza ezberdinak egiteko grina, edota gizartearen eraikuntzan konpromisoa.

- Parte-hartzaile guztiak zeozer berria ikasi dutela azpimarratzen dute. Gainera, beste gazte batzuen errealitateak eta ikuspuntuak entzuteko eta ezagutzeko aukera aberasgarria izan dela esan dute.
- Askatasunez hitz egiteko aukera izan dute eta taldearen jarrera egokia izan denez, eroso sentitu dira.
- Dinamikak gustukoak izan dituzte eta teknikariek egindako lana ere. Horregatik, ezagun bati formakuntza saioetan parte-hartzea gomendatuko liokete.
- Aldiz, formakuntza saioaren ordutegia eta iraupenak iritzi ezberdinak sortu dituzte: batzuentzat luzeegia egin da eta beste batzuentzat motza.
- Formakuntza saioetan lortutako batz besteko nota bikainekoa da (9).
- “Beste iradokizun”en atalean haxe ipini dute:
 - o *Denbora gehiago, ordu gehiago aberasgarria litzateke.*
 - o *Euskarakoak gaztelerara itzultzea baina alderantziz ez gaizki deritzot. Bakoitzak erabili dezala nahi duen hizkuntza, erkidego elebidun batean bizi gara.*
 - o *Oso interesgarria eta aberasgarria iruditut zait. Gehiago ezagutarazi behar zarete, lan bikaina egiten duzue!*
 - o *Mila esker!*
 - o *Oso interperlatuta sentitu naiz. Eskerrik asko.*
 - o *Asko gustatu zait. Batez ere Berba Arbola eta uste dut zuhaitz handi bat egin beharko genukeela gizarte osoak parte hartu dezan.*
 - o *Besteen iritzia eta ideiak ezagutzeko oso aukera ona.*
 - o *Egindakoagatik zoriontzen zaituztet: nire lehen aldia izan da eta errepikatuko nuke.*

Bestetik, **talde dinamizatzailearen** ondorioak hauek izan dira:

- Formakuntza saioak EAEko hiru unibertsitateetan egiteke gelditu dira (EHU, Mondragon eta Deusto).
- EGK-ko elkarteei formakuntza saioa bere baitan dohainik jasotzeko aukera eman zaie, baina ez du inork eskaria egin.
- Formakuntza saioetara izena eman zuten gazte batzuek ez dira agertu. Haietako batzuek abisatu zuten, beste batzuk ez.
- Formakuntza saiora etorri diren gazte kopuruaren arabera, dinamika bakoitzari zuzendutako denbora luzatu edo murriztu egin da. Hala ere, horrek ez du saioaren estruktura aldatu eta dinamika guztiak gauzatu dira.
- Talde dinamizatzaileak elebitan egin ditu azalpen guztiak eta ziurtatu du parte-hartzaile bakoitza eroso sentitzen den hizkuntzan azaltzea, gero esandakoaren itzulpena eginez. Saioa elebitan garatu bada, ezinbestekoa izan da itzulpenak egiteko denbora uztea. Horrek dinamiketako erritmoa moteldu du, baina premiazkoa da bakoitza eroso sentitzen den hizkuntza erabiltzera bultzatzea, hizkuntza, pentsamendua eta emozioa eskutik baitoaz.
- Parte-hartzaileek bere esperientzia pertsonaletara eraman dituzte dinamiketan planteatutakoak eta eman dituzten azalpenak eta ikuspuntuak hausnartuak eta argudio sendoz eraikitakoak izan dira.
- Oso talde parte-hartzaileak izan dira. Normalean (salbuespenak salbuespen) denek hitz egin dute, behintzat dinamika ezberdinetan hitz egiteko txanda eman zaienean. Iritzia



askatasunarekin emateko aukera izan dutenean, batzuk besteek baino gehiago hitz egiten dute.

- Hitz egiteko txandak errespetatu dira eta ez da errespetu faltarik egon. Barometroaren dinamikan eztabaida sustatzeko aukera egon arren, ekiditu da, helburua bestea entzutea zelako, besteek esandakoa abiapuntu bezala hartuta hausnartu.
- Talde sena azkar lortu da, giro eroso sortu eta mantendu da arratsalde guztietan zehar. Horrek sustatu du gazte batzuk gauza oso mingarriak plazaratzea. Askariak elkar ezagutzeko oso momentu polit eta interesgarriak suertatu dira, denak denekin egoteko aukeragatik.
- Dinamikak gustukoak izan dituzte, batez ere Berba Arbola. Oso esperientzia interesgarria eta baikorra izan dela esan dute, ohiko formakuntza saiotik aldendu delako eta protagonismoa beraiek izan dutelako. Gainera asko eskertu dute beste errealitate batzuk bizi izan dituzten gazteekin ikuspuntuak elkar trukatzeko.

6.2. Bakeahots komunitate birtuala

Deskribapena

EGK-ren planteamendua komunitate birtual batean bihurtzea izan da: Bakeahots. Bertan, gazteek bizi izan dugun egoeraren inguruan libre adierazteko eta esperientziak elkarbanatzeko aukera ematen da. Baita oraindik eraikitze dagoen etorkizun amankomun baten gaineko proposamenak eta itxaropenak egiteko lekua ere bada. Edukiak euskaraz eta gazteleraz (nahiz elebitan) sortu daitezke; eta diziplina artistiko ezberdinak erabili: arte grafikoak, ikus-entzunezkoak, marrazketa eta pintura, eskultura eta artisautza, argazkilaritza eta literatura. Edukiak igo eta haien gainean iruzkinak egiteko ezinbestekoa da erregistratua egotea, baina ez hauek ikusi eta sare sozialetan partekatzeko. Halaber, eduki mingarriak eta tentsiozko egoerak saihestearren, bai edukiak bai iruzkinak EGK-tik ikuskatutak izaten dira Bakeahotsera igo baino lehen.

Helburuak

- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.
- Gazte-memoria artistiko bat sortu.

Hartzaileak

- Testigantzak sortu eta komentatu ditzaketenak: EAEko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
- Testigantza horiek kontsultatu, partekatu eta deskargatu ditzaketenak: komunitate birtualera sartu nahi duten guztiak.

Ekintzak

1. FASEA: PLANTEAMENDUA (ekaina)

- Bakeahots komunitate birtualaren antzeko webguneen bilaketa.
- Proposamen ezberdinen balorazioa.
- Komunitate birtuala nork burutuko duen erabakitzea.



2. FASEA: GARAPENA (uztaila eta irailaren lehenengo erdia)

- Diseinua eta eurastrutura egin.
- Edukien aukeraketa irizpideak definitu, baita moderazio irizpideak ere.
- Eduki korporatiboak idatzi.
- "LOPD"aren aplikazioa kudeatu. (Ley Orgánica de Protección de Datos)

3. FASEA: PLAZARATZEA (irailaren bigarren erdia, urria eta abendua)

- Bakeahots aurkezteko prentsaurrekoaren deialdia prestatu.
- Prentsaurrekoa gauzatu.
- Bakeahotsera igotako edukiak kudeatu.
- Ebaluaketa egin.

Jarraipena eta ebaluaketa

1. Jarraipena:

Espazio irekia proiektuaren helburuak betetzen direla ziurtatzeko, eragile ezberdinekin jarraipena bilerak egin dira; eta bai posta elektronikoz zein telefonoz, hauekin harremana maiztasunez mantendu da.

- Bakeahots komunitate birtualaren irudi korporatiboaren arduraduna: Control+ Studio.
- Bakeahots komunitate birtualaren eurastruturaren arduraduna: Gorka Maiztegi informatikari gaztea.

2. Ebaluaketa:

Espazio irekiaren **datu orokorrak**:

- Eduki gutxi igo dira, sei guztira. Gehienak urria hasieran, hau da, prentsaurrekoaren ondoren.
- Dirudienez, erabiltzaileen izenak ez dira izen errealak edo behintzat pertsona batekin identifikagarriak. Horrek gazteek anonimotasuna gorde nahi dutela adierazi dezake.
- Testu narratiboak eta argazkiak igo dira batez ere; komiki bat ere badago. Orokorrean kalitatezkoak dira eta ez da beharrezkoa izan hauen gainean moderazioa egitea.
- Gazteleraz hiru eduki igo dira, bi euskaraz eta bakarra elebitan.
- Eduki bakoitzak batz bestea 150 bisita inguru ditu, baina haien gainean iruzkin bakar bat egin da. Sare sozialetan ez dira partekatuak izan.

Ondorioak:

- Oihartzun gutxien izan duen proiektua izan da. Nahiz eta prentsaurrekora komunikabideak etorri eta informazioa zabaldu, horrek ez du gazteengan espero zen inpaktua sortu.
- Komunitate birtualari bultzada bat emateko helburuarekin, EGK-ko Bake eta Bizikidetza lan-arloaren webgunean bihurtu da. Era honetan, Bakeahotsen erreferentzia ematerakoan, komunitate birtuala bisitatzea sustatzen da eta horrek eduki gehiago igotzea ekar dezake.
- Horrelako webguneek denbora behar dute gazteen irudimenean berezko leku bat sortzeko, batez ere, instituzioak atzean baldin badaude. Gainera, testigantza bat partekatzen lehenengoa izateak beti lotsa edo mesfidantza sortzen du, gai hauetan, askoz gehiago.



6.3 Bake Ibilbidea Topaketa

Deskribapena

EGK-ren planteamendua topaketa Bake Ibilbide batean bihurtzea izan da. Era honetan, guztiok bizi ditugun denboraren hiru ardatzak hirira eraman dira: iragana, oraina eta etorkizuna. Hiru txoko hauek ibilbide baten bidez lotu dira eta bidean geundela, elkarriketarako tartea egon da, bai eta unearen sinbolismoarekin bat zetozen hainbat ekintza egiteko ere. Giro lasaian eta erosoan bukatzeko, saioa pintxo potearekin amaitu da.

Helburuak

Proiektuaren helburu zehatzak:

- Iragana, oraina eta amankomuneko etorkizunaren ikuspuntutik, hiria ezagutu, aztertu eta bertan bizi.
- Beste hiritarren aurrean gazteriaren gai hauen inguruko kontzientzia eta sentiberatasuna ezagutzera eman.

Hartzaileak

- EAEko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak dira.
- Gizartea bere osotasunean.

Ekintzak

1. FASEA: PRESTAKUNTZA (iraila eta urria)

- Proiektuaren ideia, helburuak eta ibilbidea definitu, eta txoko bakoitzean jarraituko den galdera-gidoia eta ekintza prestatu.
- Proiektuaren irudi korporatiboa sortu.
- Materialak diseinatu eta erosi.
- Txoko ezberdinak hautatu eta erreserbatu.
- Grabazio taldearekin batera bideoa egiteko gidoia prestatu.

2. FASEA: ZABALPENA ETA GARAPENA (azaroa eta abendua)

- Bake Ibilbideen deialdia plazaratzeko komunikabideen aukeraketa egin.
- Zabalpena egin.
- Bake Ibilbideak gauzatu:
 - o Bilbon: azaroak 14ean.
 - o Gasteizen: azaroak 20an.
 - o Donostian: azaroak 28an.
- Bake Ibilbideen ebaluaketa egin.



Jarraipena eta ebaluaketa

1. Jarraipena:

Topaketaren helburuak betetzen direla ziurtatzeko, eragile ezberdinekin jarraipena bilerak egin dira; eta bai posta elektronikoz bai telefonoz hauekin harremana maiztasunez mantendu da.

- Bake Ibilbideen irudi eta material korporatiboaren arduradunak: Control+ Studio (diseinua), Copyvasc (inprimaketa), Lego 2021 (merchandising-a), Lankopi (“Memoriaren hormak” ekintzako materiala) eta Natural Branding (“Aldaketa landatuz” ekintzako materiala).
- Bake Ibilbideen txoko ezberdinetako arduradunak:
 - o Bilbon: Udala (La Bolsa eraikina), Barceló Bilbao Nervión hotela, Deustoko Unibertsitatea.
 - o Gasteizen: Caja Vital Fundazioa (Kordoi Etxea), EHU (Magisteritza Fakultatea), Eusko Legebiltzarra.
 - o Donostian: Donostia Kultura (San Jeronimoko Kripta), Summa Ikastetxea, Zubiri Manteo Ikastetxea.
- Grabazio taldea: Rekkam Video taldea.

2. Ebaluaketa:

Bake Ibilbideetako **datu orokorrak**:

- Bake Ibilbide bakoitzean gutxienez EGK-ko bi teknikarik osatzen zuten talde dinamizatzailea.
- Talde dinamizatzaileak saio guztietan azalpenak elebitan eman zituen eta parte-hartzaile bakoitza eroso sentitzen zen hizkuntzan hitz egin zezakeela bermatu zen, gero taldeari esandakoaren itzulpena eginez.
- Guztira 19 eta 30 urte bitarteko 32 gazte hurbildu ziren Bake Ibilbideetara (15 neska eta 17 mutil).
- Parte-hartzailearen gehiengoa Bake Ibilbidea gauzatu zen hiriburuan bizi zen, baina lurraldeko beste udalerrietatik ere gerturatu ziren.
- Parte-hartzaile gehienak ez ziren erakunde bateko kideak (32tik 20), baina elkartegintzan diharduten gazteak ere hurbildu ziren.
- Formakuntza saioetan parte hartutako 12 gazte etorri ziren Bake Ibilbideetara.

Parte-hartzaileen artean banatutako ebaluaketa orriari esker ondorio hauek atera dira:

- Parte-hartzaileek Bake Ibilbideen deialdiaren berri, internet bidez (buletinak, posta elektronikoa eta sare sozialak barne) edo ahoz-ahoz izan dute batez ere.
- Bake Ibilbideetan izena emateko parte-hartzaileen motibazioen artean, hauek daude: gaia bera bultzatuta, beste errealitate batzuk eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea, planteamenduaren originaltasuna, gai hauekiko hostasuna gainditzeko desira, jakin-mina eta gizartearen garapenarekiko konpromisoa.



- Parte-hartzaile guztiek zeozer berria ikasi dutela azpimarratu dute. Gainera, beste gazte batzuen errealitateak eta ikuspuntuak entzuteko eta ezagutzeko aukera aberasgarria izan dela adierazi dute.
- Askatasunez hitz egiteko aukera izan dute gehienek eta taldearen jarrera egokia izan denez, eroso sentitu dira. Hala ere, grabazio taldearen presentziagatik batzuetan lotsatuta sentitu dira.
- Dinamikak gustukoak izan dituzte (nahiz eta denek guztietan ez parte hartu: bi gaztek ez zuten ezer esan, entzutera bakarrik etorri ziren) eta teknikariek egindako lana ere. Arrazoi hauengatik, ezagun bati Bake Ibilbideetan parte-hartzea gomendatuko liokete.
- Bake Ibilbidearen ordutegia eta iraupena egokiak iruditu zaizkie.
- Bake Ibilbideak topaketekin lortutako batz besteko nota bikainekoa da (9).
- “Beste iradokizun”en atalean haxe ipini dute:
 - o Ibilbideen baitan ekintzetako bat hitzaldi laburraren formatuan egin daiteke agian, testigantzen bat? Lan-talde txikiagoetan eztabaida egiteko aukera baloratzea, jatorri desberdineko pertsonak nahastea bermatzeko.
 - o Ondo egon da talde txiki batean (10 pertsona baino gutxiago) bakearen gaia lantzea baina, nola lortuko dugu besteei helaraztea?
 - o Gustatuko litzaidake Bake eta Bizikidetzako ekintzak gauza puntual batean ez gelditzea. Etorkizun batean EGK-k ekintza gehiago antolatzea gustatuko litzaidake gizarte aurrera joan dadin. Mila esker.
 - o Ekimenaren antolaketa eta tratua oro har oso ona izan da, benetan. Batzuetan talde-giroak (gehienetan parte hartzaile berdinek hitz egitea, adibidez), parte-hartzaileen arteko konfiantza oso txikiak eta ekimenean parte-hartzen ez zeudenen presentziak (argazkiak, kamerak, grabagailuak...) nire burua taldean eroso edo aske ez sentitzea ekarri du. Beharbada, gusturago egongo nintzatekeen ekimenean sartuago eta askeago sentitu izan banintz. Hala eta guztiz ere, dinamiketan ondo sentitu naiz eta esperientzi gisa errepikatuko nuke.
 - o Jarraitu horrela, lanean, aurrera, gizarte aske eta justu bat eraikitzen.
 - o Topaketan parte hartzeko jarri dituzuen erraztasun guztiak eskertzen ditut: garraio publikoaren ordainketa, askaria eta pintxo-potea. Bi hauek esperientziak partekatzeko momentu erosoak eta dibertigarriak izan dira.

Bestetik, **talde dinamizatzailearen** ondorioak hauek izan dira:

- Bake Ibilbideetarako izena eman duten gazte batzuek ez dira egunean agertu. Haietako batzuek abisatu dute, beste batzuk ez.
- Formakuntza saioetara etorri diren gazte batzuk, Bake Ibilbideetara ere etorri dira (12 guztira). Beste batzuk, aldera, ekimen batetan bakarrik hartu dute parte (63 guztira).
- Bake Ibilbide guztietan ez dute 12 gazte baino gehiagok parte hartu. Talde txikia izatea, talde sena azkarrago sortu eta mantentzea ahalbidetu du, baita dinamika bakoitzari zuzendutako denbora luzatzea, hau da, hitz txandak luzeagoak izatea.
- Bake Ibilbide guztietan aurreikusitako estruktura eta dinamikak mantendu dira.
- Dinamizatzaileak elebitan egin ditu azalpen guztiak eta une oro ziurtatu du parte-hartzaile bakoitza eroso sentitzen den hizkuntzan azaltzea, taldeari esandakoaren itzulpena eginez. Topaketa elebitan garatzen baldin bada, ezinbestekoa da itzulpenak egiteko denbora uztea. Horrek dinamiketako erritmoa moteltzen du, baina premiazkoa da



bakoitza erosoan sentitzen den hizkuntza erabiltzeko aukera izatea, hizkuntza, pentsamendua eta emozioa eskutik baitoaz.

- Denborak era egokian bete dira. Iragana gehien luzatzen den txokoa izan da beti, eta etorkizuna motzena, batez ere, parte-hartzaileen nekeagatik. Hauek denbora izan dute behar zutena esateko, eta ez dirudi inor zerbait esateko gogoz gelditu denik.
- Txokotik txokora lasaitasun osoz beraien artean hitz egin dute, beraz dinamikez kanpo, harremanak sortzeko aukerak eman dira.
- Ekimen honetan parte-hartzeko ez ziren ezagutza bereziak behar, baizik eta nork bere ikuspuntutik eta bere esperientziatik hitz egitea eta besteen esperientziei esker hausnartzea. Baliteke hausnarketarako proposatutako galderek barneak mugitzea eta horrek isiluneak sortu izana, baina parte-hartzaileek beharrezkoak zirela azpimarratu dute, erantzuna kostata aurkitu arren.
- Parte-hartzaileek emandako azalpenak eta ikuspuntuak hausnartuak eta argudio sendoz eraikitakoak izan dira.
- Talde sena azkar lortu da, giro erosoak sortu eta mantendu da arratsalde guztietan zehar. Topaketak emozioz beterik egon dira: parte-hartzaile askok markatutako esperientzia gogorrak kontatu dituzte eta beste batzuk kontatzeko gogoekin geratu direla sumatu da. Taldearekiko konfiantza faltak, beldurrak eta grabazio taldea bertan egoteak, eragina izan dute. Hau iraganeko txokoan sumatu da batez ere.
- Hitz egiteko txandak errespetatu dira, inork ez du beste inor zapaldu eta ez da errespetu faltarik egon. Bataz beste, guztiek denbora berdina erabili dituzte euren ikuspuntua azaltzerakoan, salbuespenak salbuespen (gazte gutxi batzuk ez dute ezer kontatu: bi izan dira zehatz-mehatz).
- Bukaeran, dinamiketan gustura sentitu direla esan dute. Ekintzak ere asko gustatu zaizkie, oso koherenteak iruditu zaizkie. Gainera, une oro azpimarratu zaie askatasun osoa zeukatela hitz egiteko edo isilik egoteko, edo talde-ekintzetan parte hartzeko edo ez.
- Oso esperientzia interesgarria eta baikorra izan dela esan dute. Originala iruditu zaie eta protagonismoa beraiek izatearen garrantzia nabarmendu dute.
- Askaria eta pintxo-potea elkar ezagutzeko momentu polit eta interesgarriak izan dira.
- Errepikatze gogoekin amaitu dute. Bakearen inguruko beste ekimenengatik galdetu dute eta aurrerago egingo diren ekintzetan parte-hartzeko prestutasuna azaldu dute.

6.4. Erreferentzia-funtsaren planteamendua

Deskribapena

Hitzarmenean ematen den definizioa kontuan hartuta, proiektu honen muina erreferentzia-funtsaren diseinua egitea da, oraingoz gauzatu gabe. Erreferentzia-funtsa webgune bat izatea proposatzen da (*Baketegia*), non bertan zinemako, antzerkiko eta literaturako erreferentziak txertatuko dira; betiere bake eta bizikidetzarekin lotutako gaiak helburu pedagogiko batean jorratzen baldinba dituzte. Erreferentzia bakoitzaren ezaugarri teknikokoak fitxa batean islatuko dira. Gainera, webgune honen protagonismo osoa erabiltzaileengan eroriko da, hauei erreferentziak kontsultatu, partekatu, deskargatu, proposatu eta komentatzeko aukera emango zaielako. Hasieran azaldutako diziplina artistikoetako erreferentziak eskainiko dira soilik, baina aurrera zerrenda zabaltzea espero da.



Helburua

- Bizikidetzako eta gizartea elkartzeko kultura lortzeko baliabide eta aplikazio sortzaileen eta artistikoen funtsa sortzea.

Hartzaileak

- Institutuzio artistiko eta kulturalak, EGK-ko erakundeak eta pertsona/profesional anonimoak.
- Erreferentziak kontsultatu, partekatu, deskargatu eta haien gainean iritzia eman nahi duten guztiak.

Ekintzak

1. FASEA: BILAKETA (uztaila)

- Antzeko webguneen bilaketa.
- Antzeko funtsa daukaten erakundeekin kontaktua.
- Funtsaren bideragarritasuna neurtu.

2. FASEA: DEFINIZIOA (uztaila eta abendua)

- Erreferentzia-funtsaren diseinuaren zirriborroa.
- Erreferentziak bilatzeko eta sailkatzeko erabiliko diren datuak eta ezaugarriak erabaki.
- Erreferentzien aukeraketa irizpideak definitu.
- Webguneko iruzkinen moderazio irizpideak aukeratu.
- Erreferentzia-funtsaren behin behineko proiektua idatzi.
- Erreferentzia-funtsaren behin betiko proiektua idatzi.

Jarraipena eta ebaluaketa

Erreferentzia-funtsa proiektuaren egokitasuna eta bideragarritasuna bermatzeko, eragile ezberdinekin bilerak egin dira:

- Fernando Buesa Fundazioko funtsa-dokumentalaren arduraduna, Jon Narváez López de Averasturi.
- Webgune programatzailea den Gorka Maiztegi.

6.5. EAEko erakundeekin bilerak

Deskribapena

Hitzarmena sinatu zuenean, EGK-k “Gazteen elkartean *Gizalegez gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromisoari* buruzko akordioa zabaltzea, eta haren edukiei buruzko parte hartzeko eta adosteko prozesu bat sustatzera” konpromisoa hartu zuen. Horretarako, EAEan lan egiten duten EGK-ko erakundeekin bilerak egin dira. Honela, *Gizalegez* dokumentua ezagutzera emateaz gain, EGK-ko erakunde bakoitzari sinatutako hitzarmenaren berri eman eta Bake eta Bizikidetzaren ildoaren proiektuak azaldu dira. Halaber, bilera hauetan, udazkenean burutu diren ekimenak zabaltzeko laguntza eskatu



zaie eta parte hartzera gonbidatu. Metodologia hau erabilia, erakundeekin gertuko tratua sustatu da. Gainera, proiektuak diseinatzeko orduan, ekarpenak egitera gonbidatu zaie, ekimenetan aniztasuna eta ikuspuntu guztien presentzia bermatu nahian eta arlo honetan baliozko ondorioak jasotzeko asmoz.

Helburuak

- EAE mailan diharduten EGK-ko erakundeen errealitatea ezagutzea.
- Bake eta Bizikidetza lan arloa EAEko EGK-ko erakundeei aurkeztu, baita (Kontseiluaren barruan egon ez arren) ildo honetan aritzen diren beste erakundeei ere.
- EAEko EGK-ko erakundeak Bake eta Bizikidetza arloan dituzten ikuspegiak eta itxaropenak ezagutzea; eta antolatu behar diren ekimenak zabaltzeko eta haietan parte hartzeko gogoak neurtu.

Hartzaileak

- EAE mailan diharduten EGK-ko erakundeen ordezkariak. Guztira 53 erakunde.
- EGK barruan egon ez arren, EAE mailan Bake eta Bizikidetza arloak lantzen dituzten erakundeak. Guztira 48 erakunde.

Ekintzak

1. FASEA: PRESTAKUNTZA (ekaina)

- EAE mailan lan egiten duten EGK-ko elkarteekin biltzeko eta Gizalegez akordioa zabaltzeko jarraitu beharreko gida-lerroa definitu.
- EAE mailan lan egiten duten EGK-ko erakundeekin datu base bat egin eta beste bat Bake eta Bizikidetza arloan dihardutenekin.
- Bilera bakoitzean pausu berdinak jarraitzearen gidoiaren diseinua egin eta erregistro-dokumentuak prestatu.

2. FASEA: HARREMANA SORTU (uztaila, iraila eta urriaren lehenengo erdia)

- Telefonoz lehen saiakera.
- Erakundeei posta elektronikoko bat bidali, aurkezpen bilera batera gonbidatuz.
- Telefonoz bigarren saiakera.
- Telefonoz hirugarren saiakera.
- Erakunde ezberdinekin bilerak:

EGK-ko erakundeak (53tik 31):

1. FVJE: Uztailak 30
2. Ai Laket!: Abuztuak 25
3. Ezker Anitza: Abuztuak 26
4. Kale Dor Kayiko: Abuztuak 26
5. Ajobask Euskadi: Irailak 2
6. CC.OO. Gazteak: Irailak 3
7. Gurutze Gorria: Irailak 3
8. Euskalerriko Eskautak (Bizkaia eta Araba): Irailak 3



9. GazteGehitu: Irailak 4
10. Hezkide Eskola: Irailak 4
11. Bizi Alai Taldeak (BAT): Irailak 4
12. Alevines Vascos Aisiarako Elkartea: Ez ziren irailak 8an adostutako bilerara agertu.
13. Juventudes Socialistas: Irailak 8
14. Mujeres Jóvenes Euskadi: Irailak 8.
15. ENBA Gazteak: Irailak 8
16. Euskal Herriko Giak: Ez ziren irailak 9an adostutako bilerara agertu.
17. Ernai Gazte Kultur Elkartea: Irailak 10
18. Atzegi: Irailak 11
19. Atsedeen Taldea: Irailak 12
20. EHNE Gazteak: Irailak 12
21. Ikasle Abertzaleak: Irailak 12
22. EDE Fundazioa: Irailak 17
23. Iratzarri: Irailak 17
24. Gazte Abertzaleak: Irailak 17
25. Deusto Campus – Universidad y Solidaridad: Irailak 17
26. Urtxintxa Eskola Bizkaia: Irailak 17
27. Gaztetxoak Bizkaia: Urriak 6
28. EGI Errekaldeko Eusko Gaztedi: Urriak 6
29. Gaztepolis: Urriak 6
30. Lurgorri Ikasle Elkartea: Urriak 6
31. Arduradun Eskola: Urriak 16

Bake eta Bizikidetzaren arloan EAEan lan egiten duten erakundeak (48tik 4):

1. Giza Eskubideen eta Bake Heziketarako Elkarleen Foroa: Uztailan bilera bat adostu zen formakuntza saioa zein erakunde egin zezaketen adosteko.
2. Bakeola eta Gernika Gogoratuz: Iraila eta urriaren zehar bilerak egin dira formakuntza saioaren programa adosteko.
3. Fernando Buesa Fundazioa: Uztailak 28
4. Zinhezba: Irailak 2

3. FASEA: EMAITZAK (urriaren bigarren erdia eta azaroa)

- Hitzartutako ekimenen deialdia erakundeei posta elektronikoz bidali.
- Ekimenetan parte hartzeko gonbita zuzena telefonoz egin.
- Ondorioen erredakzioa.

Jarraipena eta ebaluaketa

1. Ebaluaketa:

- Erakunde askok ez dute aurkezpen bilerarako deialdia erantzun. Hau arrazoi ezberdinengatik izan daiteke. Alde batetik, erakundea jada existitzen ez delako edo bere harreman datuak aldatu dituelako. Bestetik, interes falta bat egon daitekeelako. Eta azkenik, lan karga eta denbora falta dela eta erakundearen egunerokotasunean EGK-ren deialdiak eta proposamenak lehentasunik ez dutelako (kostata adostutako bileratan, ala adierazi zuten erakunde batzuetako ordezkariak).



- Erakundeetako ordezkari ezberdinek EGK-ri aurkezpen bilerak egitea eskertu diote, bai Bake eta Bizikidetzan lan arloa ezagutzeko baliagarriak direlako eta bai proiektuen diseinua egiterakoan ekarpenak planteatzera gonbidatu zaielako.
- Erakunde guztien ordezkari, langile eta bolondresen batz besteko adina geroz eta altuagoa dela azpimarratu dute erakunde gehienek, hau da, erakundeetan geroz eta gazte gutxiago dagoela.
- Hitzartutako proiektuak aurkezterakoan erakundeetako ordezkari guztiek interesgarriak direla azpimarratu dute eta zabaltzeko konpromisoa azaldu. Gutxi batzuk parte-hartzera animatuko direla adierazi dute.
- Ekimenak gauzatzeko data hurbildu denean, izen emate eskasa ikusita, elkarrekin deitu da. Ekimenen inguruko informazioa azaltzen duen posta elektronikoa ez dutela irakurri aitortu dute elkarrekin gehienek. Zabaltzeko mesedea eskatuta, prestu agertzen badira ere, parte-hartzeko gonbite zuzena egiterakoan, “oso zaila ikusten dut, beste lankide edo bolondres batekin komentatuko dut” izan da erantzuna gehienetan.
- EGK-k antolatutako ekimenetan parte ez hartzeko aipatutako arrazoiak hauek izan dira (erakundeetako ordezkarien artean deialdiari erantzuna eman diotenak): lan karga, denbora falta, ekimenen ordutegia, erakundearen ekimenen datekin bat egitea, gai hauek lantzerakoan erabilitako irizpideen gainean mesfidantza, ildo hauen inguruan erakundearen filosofia definiturik ez izatea, edota antzeko ekimen batean parte hartu izana eta esperientzi txarra izana.
- Aipatutako erakunde guztietatik EGK-k antolatutako ekimenetara 14 etorri ziren azkenean: Bizi Alai Taldeak (BAT), Gaztetxoak, Gazte Abertzaleak, Gazte komunistak, Iratzarri, Juventudes Socialistas, Kale Dor Kayiko, Baketik, Lokarri, Gurutze Gorriko Gazteak, EGI, Fernando Buesa Fundazioa eta Hezkide Eskola.
- EAE mailan lan egiten duten EGK-ko erakunde gehienek ez dute Gizalegez akordioa ezagutzen, beraz paperean eta digitalean kopia bat helarazi zaie.

ERANSKINA. Bake eta Bizikidetzan arloko beste ekintzak

Hitzartutako egitasmoen gain, ekaina eta abendua bitarte, EGK-k beste bake ekintza batzuetan parte hartu du. Kasu batzuetan EJko Bake eta Bizikidetzan Idazkaritzak antolatutakoak izan direlako; eta besteetan ekimenetako arduradunek ala eskatu diotelako EGK-ri:

- **“El fin de ETA y la recuperación de la convivencia en el País Vasco”:** Tareas pendientes ikastaroa: Madrileko Unibertsitate Konplutentseak (MUK) antolatzen zuen ikastaroan EGK-ri entzule bezala parte hartzea gonbidatu zitzaion. Kurtsoa EJko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak babesten zuen eta ekainak 30 eta uztailak 2a bitarte burutu zen El Escorialen.
- **“El Camino hacia la Paz en el conflicto vasco”:** instituciones, políticas y sociedad proiektua. Nafarroako Unibertsitate Publikoa burutzen ari den proiektuaren helburua gaur egun EAEn eta Nafarroan bizi dugun testuinguru sozio-politikoa aztertzea da, aurrean dugun bake-erronka kontutan hartuta. Lohitzune Zuloaga doktorea arlo hauetan lan egiten duten eragile ezberdinekin elkarriketak mantentzen ari da. EGK-rekin abuztuak 26an bildu zen Bilbon.



- **Euskal gizartea terrorismoaren aurrean:** iragana, oraina eta etorkizuna tailerra: Urriak 16 eta 17an Gasteizen Fernando Buesa Fundazioak antolatua, EGK entzule gisa joan zen.
- **Peace Program:** EJko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eta Ipar Irlandako Peace Program-en kudeatzaileen arteko elkar-lanaren baitan, urriak 21 eta 24a bitarte, Bilbon, topaketa bat burutu zen. Bertan, lan-talde ezberdinetan banaturik (EGK "Gazteria" taldean zegoen) ideiak eta esperientziak partekatzeko aukera egon zen. Helburua, 4. Peace Programerako egitasmo komunak identifikatzea zen.
- **Gazteak Bake eta Bizikidetzaren aurrean jardunaldia:** EGK-ko Gaztepolis elkarteak urriak 24ean antolatutako jardunaldirako, 20 minutuko hitzaldia prestatu zen. Bilbon izan zen mahai-ingurua eta EGK-z gain, Txema Monterok eta Ipar Irlandako Youth Action erakundeko kideek osatzen zuten.
- **EHU eta Donostia 2016 arteko ikerketa:** EHUko ikertzaile talde bat, Donostia 2016 egitasmoarekin batera, Bake eta Bizikidetzaren inguruan ikerketa bat burutzen ari dira. Horretarako, EAE mailan aurrera eraman diren ekimenen erregistro bat egin nahi dute, etorkizunari begira gizarteko eragile ezberdinekin topaketa bereziak garatzeko asmoz. Xavier Mínguez ikerlaria EGK-rekin harremanetan jarri da Kontseiluak honen inguruan egin dituen eta egun garatzen ari dituen proiektuen berri izateko. Bilera urriaren 30an egin zen.



7. PRESIDENTZIA

7.1. Batzorde Iraunkorra

Helburuak

Orokorrak:

- EGKri dagozkion gaien inguruko erabakiak bideratu.

Zehatzak:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.
- Egindako ardura banaketak abian jarri.
- B.I.kideen parte hartzea sustatu.

Hartzaileak

- Batzorde Iraunkorreko kideak.
- Lan Talde Teknikoa.
- EGKko lan-talde eta elkarteak.
- Komunikabideak eta gizartea.

Ekintzak

Batzorde Iraunkorraren bilerak
Lan Talde Teknikoarekin bilerak

Jarraipena eta ebaluaketa

- Bileren maiztasuna.

Urtarrilak 13 eta 27

Otsailak 3 eta 17

Martxoak 5 eta 24

Apirilak 7

Maiatzak 5 eta 26

Ekainak 9 eta 23

Irailak 8 eta 22

Urriak 6 eta 20

Abenduak 3 eta 24

Talde giroa ez da txarra izan, baina pertsona aldaketa ugari egon denez, pertsona egonkorren artean harreman estuagoak sortu dira, besteekin baino. Taldekideen inplikazioa eta konpromisoa oso ezberdina izan da. Bakoitzaren lan arloarekiko jarraipena eta egunerokoarekiko interesa, batetik bestera, erabat ezberdina izan da. Horrek desoreka handia ekarri du langileekiko.



Presidentziatik ez da lortu iraunkorkideak ekintza, agerraldi, negoziazio bilera eta abarretan inplikatzetik. Baliteke koordinazio falta egon izana edo gutxi eskaini izana. Une oro taldeari informazio eta egunerokoaren berri emateko ahalegina egin da.

- Bileren eraginkortasuna.

Orokorrean taldekideak bileretara joan dira, baina guztietan jendea falta izan da. Batz bestekoa 6-7 pertsona bilera bakoitzeko.

Bilerak gehien bat informatiboak izan dira, baina erabaki behar izan denetan, hala egin da.

- Erabakien gauzatzea.

Erabakiak ez dira beti bileretan hartu, gertatu izan da inoiz waxap-a edo posta elektronikoa erabili behar izatea berehalako erabakiak hartzeko. Ez da honetarako protokolorik ezarri, aurreikusia bazegoen ere.

- Elkarteen erantzuna.

Elkarteen erantzuna ohikoa izan da, eta ez da Iraunkorreko taldeen parte hartzea ohi baino handiagoa izan.

7.2. Lantalde Teknikoaren koordinaketa

Helburuak

Orokorrak:

- Lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.
- Zubi lana egin Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.
- Teknikarien aukeraketa.

Hartzaileak

- Lan Talde Teknikoko kideak.
- Batzorde Iraunkorra.
- EGK orokorrean.

Ekintzak

Lan Talde Teknikoaren bilerak

Bilera hauek, hilean behin presentzialak izan dira, lurraldeak txandakatuz. Horrez gain, urte amaieran, skype bidezko bilerak martxan jarri dira. Honekin, koordinazioa hobetzeaz gain, eraginkortasuna eta denbora aurreztu dira.

Batzorde Iraunkorrarekin bilerak

Bilera bakoitzaren aurretik, talde teknikoak aurre prestaketa bat egin du.

Aukeraketa prozesuak

Aurten 4 izan dira egin behar izan diren deialdiak. Batean ezik, gainontzekoetan, irizpideen arabeko lehen aukeraketa; idatzizko frogak; elkarrizketa eta batzorde iraunkorrean hartutako azken erabakia izan dira jarraitutako faseak.



Komunikazioa: martxoa-apirila.

Bakea eta bizikidetza: apirila-maiatza.

Berdintasuna: Abendua.

Gasteizko parte hartze teknikariaren ordezkapena: Iraila.

Egunerokotasuna

3 egoitza ezberdinetan lan egiten dela kontuan hartuz, egunerokoan jarraipena egiteko baliabide ezberdinak erabiltzen dira: waxap talde teknikoa, skype talde teknikoa, "teknikoa" posta elektronikoko distribuzio taldea.

Horrez gain, lan taldearen giroa eta baldintzak zaintzeko ahalegina egin da. Koordinazioaz gain, giza baliabideak gizatasunetik landuz eta behar ezberdinak asetzeko ahaleginak eginez.

7.3. Batzorde ekonomikoa

Helburuak

Orokorrak:

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.
- Alor honetan unean-uneko erabakiak hartu.

Zehatzak:

- 2014ko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa prestatu.

Hartzaileak

- Aldundiak
- Eusko Jaurlaritza
- Batzar Nagusiak
- Batzorde Iraunkorra
- Lan Talde Teknikoa

Ekintzak

Batzorde Ekonomikoaren bilerak

Urtean 2-3 bilera besterik egin ez badira ere, koordinaziorako gainontzeko baliabideak erabili dira administraria, diruzaina eta presidentearen artean (posta elektronikoa eta telefono deiak batez ere).

Jarraipena maiz egin da.

Aldundiekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkaritza.

**Eusko Jaurlaritzarekin bilerak**

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkartza.

